

2009ko apirilaren 2a • XXIX. urtea
www.ttipi.net



Funvera lantegian etorkizuna beltz

04

Diruz lagunduta baja hartzeko bi aukera luzatu die Berako Funvera lantegiko zuzendaritzak langileei. Gainerako langileentzat, berriz, erregulazio bat aurkeztu nahi du.



Apeztegia pilota profesionaletik at

44

Profesionaletan 13 urte pasatu ondotik, 2008ko abenduaren 31n Asperekin zuen kontratua akitu zitzaion Unai Apeztegia aurtiztarrari, eta pilota utzi behar izan du.

Bidean

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

www.nafarroakotxa

03 Azkenean Xabier Silveirak eskuratu du txapela

AURTENGOAREKIN SEIGARRENA





SANTESTEBAN Tailerrak



RENAULT

Santesteban Tailerrak - Renault • Leitzako errep. DONEZTEBE • T. 948 450 282 F. 948 450 857 • doneztebe@red.renault.es



CLIO III EMOTION 1.5 DCI 70cv
2006koa • 59.000 km



ESPACE EMOTION 2.0 DCI 130cv
7 plazakoa • 2007koa • 12.900 km



KANGOO GRAND VOL. 1.9D 65cv
2006koa • 17.000 km



MEGANE II DYNAMIQUE 1.9 DCI 120cv
2006koa • 19.000 km



MEGANE SEDAN DYNAMIQUE
1.5 DCI 105cv
2007koa • 19.000 km



OPEL ASTRA GTC 1.9 DTI 120cv
2005koa • 73.000 km



SCENIC II DYNAMIQUE 1.5 DCI 105cv
2007koa • 29.000 km



PEUGEOT 307 110cv
2005koa • 28.000 km

ETA GANERA: Megane II Expression 1.5 DCI 105 CV (2007koa), Megane Sedan Expression 1.5 DCI 105 CV (2007koa), Grand Scenic Expression 1.9 DCI 130 CV 7 plazakoa (2007koa), Megane III Dynamique 1.5 DCI 105 CV (2008koa -8.000 km), Kangoo Pack 1.5 DCI (2007koa), Ford Focus 1.8 TD (2002koa), Scenic II Dynamique 1.9 DCI 130 CV, Kangoo Express 1.9 (Itxia-2003koa)

DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK

non
bazkalduko
dugu?

BAZTAN, BIDASOA
eta XARETAKO

gastronomia gida

publizitatea
erreserbatzeko
deitu 948 63 54 58ra

Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez,
informazio interesgarri betea.

Aurten ere, Gida Gastronomikoa argitaratuko du KULTURKARIK.
Gure herrietako jatetxe eta ostatuen eskaintza erakustez gain,
jaketxe bakoitzak dituen zerbitzuak eta bisitariak herri
bakoitzean aurkituko dituenak ere bilduko ditu.

Ekainean, turistak ibiltzen diren toki guztietan banatuko da gida hau, bazkaltzeko plaza egiterakoan lagungarri izateko.
Era berean, jatetxe-ostatu bakoitzean ere utziko dira ale batzuk bezeroen artean banatzeko.
Ikusgarria den gida egin nahi da, begietarako atsegina, informazio ugarikoa eta zeinuen bitartez ulertzeko erraza.



DATUAK...

- Nafarroako Bertsolari Txapelketan historia eginez, bere seigarren txapela jauntzi du Xabier Silveira lesakarrak.
- Elizondoko Lur dantzalekua goraino beteta zegoela eskuratu zuen txapela Silveirak martxoaren 21eko finalean, buruz-buru-koan Julio Sotori ozta-ozta irabazita.
- Txapela jantzi eta berehala publikora bota zuen, baina aitzinetik, Porttu, Mattin, Ittur eta Sanseri eskaini zien, azken urtean preso hartu dituzten lau lesakarrei.



Xabier SILVEIRA *Nafarroako bertsolari txapelduna*

ARGAZKIA: ONDIKOL

«Txapelketa Nagusiari begira txapelak indarra emanen didala uste dut»

ttipi-ttapa

Zure seigarren txapela. Kontent?

Bai, eta egia erran, uste baino poz handiagoa eman dit. Agian ez nuela irabaziko mentalizatzen saiatu nintzen aitzinetik, txapela jantzeko aukera gehiago zeudelako. Baina aldi berean, ongi kantatuz gero, bertzeek irabaztea zaila izanen zutela uste nuen.

Julio Soto eta biek zineten faborito. Zure mesederako izan al zen?

Faboritoa ni bakarrik ez izatea mesederako izan zen. Faboritoaren presioa banatua zegoen, txapeldun izateko aukera genuen denok buruan. Baina zenbat eta urte gehiago, orduan eta eramangarriagoa da presioa. Horretan esperientzia badut eta uste dut baliatu nuela.

Nola ikusi zenuen finala?

Maila handiko finala izan zela uste dut. Ez dakit, batzuek erran duten bezala, Nafarroaren historiako hoberena izan ote zen, baina maila handikoa izan zen. Pozgarria da euskarak hainbertze traba dituen lurralde batean euskaraz egiten den zerbait aitzinera doala ikustea. Gainera, inoiz baino bertsozale gehiago bildu zen eta gogotsu gainera. Horrek bertsolariorio aunitz lagundu zigun.

«Maila handiko finala izan zen. Pozgarria da euskarak hainbertze traba dituen lurralde batean euskaraz egiten den zerbait aitzinera doala ikustea»

Finaleko momentu bereziren bat baduzu gogoan?

Zortziko ttikian kantatu nituen hiru bertsoek iraun zuten tartean, %100ean *ni* sentitu nintzen, bertsolari. Nire bertso-rik hoberena agian hamarreko ttikian bota nuen lehenbizikoa izan zen, diruaren gainetik osasuna dagoela erran nuen. Baina lan orokorra, uste dut zortziko ttikikoa izan zela hoberena.

Zu zerone zer moduz ikusi zinen?

Ongi, nahiko lasai egon nintzen. Nahiko terapia egin nuen nire buruarekin lasai egon eta presiorik ez edukitzeko. Banekien burua hotz mantenduz gero, lan ona egiteko aukera izanen nuela.

Baina «Julio kabroiak» urduri jarri zintuela kantatu zenuen...

Bukaera aldera gero eta estuago ikusi nintzen. Soto desentpatera ailegatuko

ote zen zalantza nuen, eta erran zutenean pixka bat gehiago apuratu nintzen. **Garrantzitsuena ez zela txapela errana zenuen, baina gustura hartu zenuen, nahiz eta gero publikora bota.** Beti hartzen da gustura. Ez da inportantea buruan eta bihotzean bertze gauzak ditudalako. Ez dakit Nafarroako bertsolaritzarentzat hagitz ona izan den nik berriz irabaztea baina Euskal Herriko Txapelketari begira nahiko animo eta indar emanen dizkidala uste dut.

18 urte bertsotan eta sei txapel. Zer eman dizu bertsolaritzak?

Aunitz, daukadan bizitza. Nire bizitza gehiena bertsolaritzari lotua dago. Bertsolari ez banintz bertze bizimodu bat edukiko nuke, eta hori lapurtu dit, baina eman didan guztiarekin ezin naiz kexatu.

Eta orain Euskal Herriko Txapelketa Nagusia...

Urrian hasiko da eta oraindik aunitz falta da. Ez da sobera ona urte erdi bat txapelketan pentsatzen egotea, bertze la bi orduz dena izorra daiteke. Hemendik urria bitarte ahalik eta hobekien kantatu beharko nuke, nahiz eta horrek bertzelako saio gehiago egin beharko ditudala erran: jaialdi gehiago, afari guttiago...



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Zuzendaritzak proposatu dituen baja boluntarioak hartzeko, apirilaren 1era bitarteko epea zuten langileek. Orain, hilaren 9ra arte negoziazioekin segituko dute LAB eta ELA sindikatuak zuzendaritzarekin.

Borondatezko baja hartzen ez duten langileentzat 2. erregulazioa Funveran

Apirilaren 9ra bitarte negoziatzen ariko dira sindikatuak eta enpresa

2009a ere badoa, baina krisi ekonomikoak bere horretan segitzen du. Okerrera ere egin duela erran liteke. Ia mila langabe daude Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanda, sekula baino gehiago, eta horri, kaleratzear egon daitezkeen ehunka kasu gehitu behar zaizkio. Lan eskaria jaustek muturreko ondorioak utzi ditu: enpresa batzuk itxita, bertzeak ixtear, eta bertze aunitz hala honela. ERE edo Enplegua Erregulatzeko Espedienteak ere ezagun egin dira eta hori da adibidez, Berako Funvera lantegiaren kasua. 2008ko azaroan zuzendaritzak EREa aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuan eta 58 egunez 188 langileri kontratua eten zion enpresak. Kontua, ordea, ez da hor bukatu. Diruz lagundutako bajak borondatez hartzeko bi proposamen egin ditu zuzendaritzak, eta gainerako langileentzat borondatezko baja hartzen duen langile kopuruaren arabera izanen litzatekeen bertze ERE bat paratu nahi du indarrean apirilaren 14tik aitzinera. Egoerarekin arduratuak negoziatioetan dabilta Langileen Batzordea osatzen duten ELA eta LAB sindikatuak.

ttipi-ttapa

Krisi ekonomikoa ailegatu arte, produktioan bete-betean asmatu zuen Funverak. Lau urtetan produktioa bikoizteko asmoa ere bazuen: «2006ra arte 7.000 tona produzitu genituen, 2006an 8.000 tona, 2007an 10.000 tona, 2008an 13.000 tona eta aurten 15.000 tonara igo nahi zen produktioa». Halaxe azaldu digute ELA sindikatutik. Azken aldian irabazi haundiak lortzera ere ailegatu zen. LAB sindikatuaren arabera, «azken hiru urteotan sei milioi euroko irabaziak» egin zituen eta ELAren hitzetan, «azken sei urteotan 11 milioi euroko irabaziak». Baina krisiarekin egoerak okerrera egin du, eta antza, ez du hobetzeko itxura haundirik.

Joan den urte hondarrean hasi zen zuzendaritza neurriak hartzen. Azaroaren 18an lan-kontratuaren etenaldiekin EREa aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuko Lan Sailean 58 egunetarako. Go-

bernuak baimena eman zion enpresari eta geroztik, 188 langile erregulazioan daude. Baina epea luzatu egin nahi du zuzendaritzak eta horretarako, martxoaren 9an bertze erregulazio bat aurkeztu zuen: langile guztiei eraginen liekeen kontratuen etenaldia 152 egunetarako, apirilaren 14tik urte akabera arte. Aldi berean, 48 langile finko kaleratu nahi zituela erran zuen.

ELAK zein LABek, ordea, kalera-terik ez zutela onartuko adierazi zuten hasieratik, eta enpresarekin negoziatzeari ekin zieten. Greba eguna ere antolatu zuten martxoaren 26rako, eta kontzentrazioa ere bai Iruñeko Lan Ikuskaritzaren bulegoaren aitzinean. Baina azken momentuan, bertze proposamen bat mahai gaineratu zuen enpresak: 48 kaleratzeak alde batera utzi eta diruz lagundutako bajak borondatez hartzeko bi aukera proposatu zituen:

1.- 10.000 euro hartu eta bi urtez langabezian egon ondotik, berriz lantegira itzuli postu finkoarekin, baina antzintasun gutzia galduz.

2.- Langileak lan egin duen urte bakoitzeko, 20 eguneko soldata jasoko luke kalte-ordainetan, baina 12 urteko mugarekin. Aukera hau hartuz gero, bizpahiru urteren buruan baliteke lantegira itzultzeko aukera izatea, baina ez finko bezala. Enpresak langilea ebentual bezala hartuko ez balu, urte bakoitzeko 10 eguneko lansaria jasoko luke eta horrekin lantegitik betirako kanpoan geldituko litzateke. Proposamen honen barrenean, bertze bide bat hautatzeko aukera ere badute langileek: urte bakoitzeko 30 eguneko kalte-ordaina jaso, baina 12 urteko mugarekin. Honela ere langilea betirako enpresatik kanpo geldituko litzateke.

Diruz lagundutako baja boluntarioa hartu nahi duenak apirilaren 1era bitarteko epea zuten izena emateko, asteazkenera arte, beraz. Baina kontua urrutirago doa. Diruz lagundutako baja horietan izena emandako langile kopuruaren arabera EREa aurkeztu nahi baitu zuzendaritzak gainerako langileentzako. «Inor ez bada apuntatzen, aagian 220 eguneko ia izan daiteke», dio ELAK. LABek, bere aldetik, «garbi» du ez duela ERErik onartuko.

Baja boluntarioetan izena emateko epea bukatuta, apirilaren 9ra arte negoziatzen ariko dira sindikatuak eta enpresa. Edonola ere, etorkizuna ziurgabe ikusten dute. ELAren hitzetan, «enpresak beti nahi duena egiten du», eta LABek ere, etorkizuna, «momentuz iluna» dela dio.

SINDIKATUAK



ELA sindikatuaren agerraldia Donezteben.



LAB sindikatuaren agerraldia Lesakan.

Sindikatu bakoitza bere aldetik

Eskualdekan gehiengoa duten sindikatuak dira **ELA** eta **LAB** eta egoerarekin arduratuak, Nafarroako Gobernuari eta enpresei konponbide eske kanpainan bete-betean murgilduak topatu ditugu. Hori bai, bakoitza bere aldetik. Dagoeneko agerraldiak egin dituzte, **LABek**, martxoaren 17an Lesakan eta **ELAK** biharamunean Donezteben—. Horrez gain, martxoaren 28rako Bera eta Lesaka artean martxa antolatu zuen **ELAK Gure etorkizunaren alde, enplegua babestuz etorkizuna bermatu** lelopean. **LABek**, berriz, ortziraletarako, apirilak 3, manifestazioa deitu du Lesakan, «*patronalaren erasoaren aitzinean planto egin eta espediente gehiago onartuko ez ditugula adierazteko*». 19:00etan abiatuko da. Aralarrek bi sindikatuen mobilizazioekin bat egin du. Lesakako Arcelor Mittal, Zalaingo Condesa tubo lantegia, Berako Fundiciones eta Savera, Hidro Rubber, Talleres Elkar, Composites Gurea eta Palmadera, Etxalarko Irigoien zerrategia, Donezteboko Zabala Egurrak eta Aparan, Aspace... Zerrenda amaigabea da eta denak kinka larrian. Donezteboko Enplegu Bulegoan ere langabeen kopurua inoizko altuena da eta lana zintzilik duten langile aunitz dago. **ELAren** ustetan, «*7.500-8.000 langileetatik 2.000 inguru*».

LABen iritziz, EREak gero eta gehiago zabaltzen ari dira eta kaleratzeak aunitz dira. Lantegiz lantegi, honelaxe eman ditu datuak: «*Hidro Rubber lantegian 18 langile daude sei hilabeterako ERE ba-*

tean; Funveran maiatzera arte 58 eguneko erregulazioa zeukaten 188 langilek; Composites Gurean eta Palmaderan 65 langile daude ERE batean uztaila bukatu arte; Aparanen 2009 osoan 37 langile erregulazio espediente batean egonen dira; Irigoien zerrategian zortzi lagun egon dira hiru hilabetez erregulazioan eta berriki luzatu egin dute; Talleres Mecanicos Elkarren 11 langile kaleratzeko espediente dago Gobernuak erabakitzeke zain».

EREen harira, **ELAK** «*susmagarritzat*» jo du Nafarroan aurkeztu EREen %98a «*bertzerik gabe*» onartu izana, «*sindikatuaren adostasuna izan ala izan gabe*». Langileak kaleratu dituzten enpresek krisia ailegatu aitzineko urteetan izan dituzten irabaziak ere apatu ditu **LABek**: «*Funverak azken hiru urteotan sei milioi euro irabazi zituen; Hidro Rubberrek 4,5 milioi euro, eta Composites Gureak lau urtez bortz milioi euro*». Alde horretatik, diru guttiago irabazten duten honetan, «*euren irabaziak langileon eskubideen kontura*» mantendu nahi izatea leporatu die **LABek** enpresei. Eta Nafarroako Gobernuak «*langileei laguntzeko neurriak hartu beharrean, enpresarieneko neurriak hartzen dituela*» iritzi dio. Egoera, beraz, beltz ikusten dute bi sindikatu nagusiek, eta kalera ateratzea erabaki dute: **LABek** «*erasoaldi bortiz honi erantzun eta langileen eskubideak aldarrikatzeko*», eta **ELAK** «*aberastasuna bana ditzaten*» eskatzeko.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena,

Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ain-

hoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier

Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolo-

sor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Ne-

rea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba

Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Aro-

tzena, Maite Oteiza, Jaione Otxando-

rena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumi-

tzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Lei-

tza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi, Sara eta Senperoko uda-

lak, Zugarramurdiko Akelarre elkar-

tea, Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zerbitzu

Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30 €



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



• IRAKURLEAK MINTZO •

Berako Zalaingo C.I.2 poligonoko hitzarmena eta alineazioei buruz hainbat kezka

1. Hitzarmena publikoari esposatzea agintzen zuen erabakia ez zen inoiz notifikatu Zalaingo bizilagunei.

2. Udalak hitzarmena jende aurrean jartzea erabaki zuen eta informazio publikorako hogeie eguneko epea irekitzea, Nafarroan argitaratutako egunkarietan argitaratuz. Baina gero egunkarietan ez zen publikatu, ez hitzarmena jendaurrean jarri izana, eta ez behin betiko onespenera ere.

Zergatik notifikatzen zait nire etxera iristea ezinezkoa den bide baten aldaketa bat, nahiz eta ni bidearekiko mugakidea ez izan?

Eta orde, asko eragiten didan hitzarmen bat jendaurrean jartzea ez zait notifikatzen?

3. Nire etxetik hurbil dagoen industrialdearen zatian neurketak egiten ari zirela ikusi nuenean,

konsulta urbanistiko bat egin nion Udalarari distatziei buruz, eta idatziz erantzun zidaten:

a) Industrialdetik nire etxera 28 metro.

b) Nire partzelatik hurbilen dagoen nabera 25,16 metro.

Orain galdetzen dut: zergatik daude 11 metro bakarrik nabeetatik nire etxera? Nik konsulta egin nuenean hitzarmena aspaldi sinatua zegoen.

4. Zergatik eman zaio urbanizatze baimena xehetasun azterlana onartu aurretik? Egintza honekin Udala alineazio batzuk onartzen ari da, eta horiek aurretik onartu behar ziren xehetasun azterlanaren barrenean.

5. Azaldu dudana, ikusten denez, Udalak hartu duen erabakiengatik (hitzarmenarena ez notifikatu, urbanizatze baimena eman aurretik xehetasun azterlana ez exijitu) ondorioztatzen da oso kalteua gelditu naizela, 11 metrotara geldituko zaidan fabrika batetik, non zuzenena 28 metrotara izatea litzateke. Horixe baita Berako Hirigintza Planak markatzen duena.

Nabeen hurbiltasunari

gehitu behar zaizkio jarduerak erakarriko dizkidan kalteak zaratengatik (egunez eta gauez), usainak (nabeen plastikoa injecktatzen ariko dira), txatar eta zabor gordegailuak, industria ibilgailuen trafikoa gasolindegira joateko, ibilgailuen eta makineria astunen trafikoa zamak jaso eta jaisteko kamioietatik.

6. Xehetasun azterlana onartzearekin alineazioak aldatu egiten dira eta nire etxea hirugarren nabeari ia itxekia doan etxea izanen da.

Zer zentzu dauka diru publiko gastatzea Hirigintza Plana egiten, gero plan honen alineazioak aldatzeko, kontuan hartu gabe gehien kaltetuak suerta daitezkenak, hain xuxen, mugakide diren bizilagunak?

Javier M^a
Irtzoki Agesta
Zalain-Bera

ALKE Altzadi Leitzako Kultur Elkarteari:

Joan den otsailaren 4an

jasotako zuen idatzia irakurri ondoren, hau da Leitzako Eusko Alkartasunaren erantzuna:

Lehenik eta behin eskerrak eman argitu dizkiguzuen zalantzen-gatik. Batzorde honek argitu nahi zuena zera zen, ea Udalarari gonbidapenak luzatzen zitzaizkion edo ez. Zuen erantzunean gure kezka argitua geratu da. Hemendik aurrera gure zalantzak eta kezkek Udalean argitzea tokatzen zaigu eta ez zuekin.

Edozein modutan ere, parte hartzeko egin diguzuen gonbidapena esker honez hartzen dugu eta antolatu behar diren kultur programa ezberdinetarako, EAren ordezkari gisa Kultura eta Kirola batzordeko zinegotzia den Aitor Etxarri Pellejero izendatzen dugu.

Besterik gabe, harreman on-garrantzitsuak izateko balio izango duelakoan,

Mila esker, ALKE Altzadi Kultur Elkartearen erantzunagatik.

Aitor Etxarri
Leitzako EAKO
Herri Batzordea

MONTXO RESTAURANT
Dantzarinetatik 2 km-tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA - VRDZVBI
Egutero irekia 10:30etik 02:30era

ZOANSA
MARKA GUZUEN KONPONKETA
Benarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

• TTIPI TXARTELA •

Ttipi-Ttapari laguntzeak badu saria

TTIPI TXARTELA erosten duenak (40 euro) baditu deskontuak denda eta zerbitzuetan, hamabostero zozketetan parte hartzeko aukera, %20ko desgrabazioa Errenta Aitorpenaren kuotan eta aldizkaria debalde

ttipi-ttapa

«*Ttipi-Ttapa Fundazioak zure laguntza behar du*». Halaxe dio aldizkari honetan bertan hainbat aldiz ikusi izanaren duzun anuntzio baten. Kasu horretan, bereziki Nafarroako Kutzan kontua duen jendeari bideratua da, *Zuk aukeratu zuk erabaki* ekimenaren bitartez Tti-

pi-Ttapa laguntzeko. Dagoeneko 100 pertsona baino gehiagok hautatu dute bere kontuak Nafarroako Kutzari sortzen dion irabaziaren zati bat **Ttipi-Ttapari** ematea. Zu zeu horietako bat baldin bazara, eska ezazu gure proiektua aukeratu izanaren frogagiria zure bulegoan eta ekar ezazu **Ttipi-Ttapa** abenduaren 30a baino

lehen. Zure lagunza eskertzeko, motxila bat izanenuz duzu opari.

Hala ere, **Ttipi-Ttapa** estimatzen duenak badu bertze bide bat ere bere laguntza emateko: **Ttipi Txartela**.



TXARTELAREKIN TTIPI-TTAPA LAGUNDU BIDE-NABAR, MERKEAGO EROSIKO DUZU HERRIKO DENDETAN

Laguntza laguntza-truk. Idea hori dago Ttipi Txartelaren atzean. Helburua 1.000 bazkide lortzea da eta, dagoeneko, kasik zazpirehunek aprobetxatzen dituzte Ttipi Txartelak ematen dituen abantailak. Herriko denda eta zerbitzuetan kontsumitza animatzea da Txartelaren xedea. Ondoko irudian ikusten ahal dira momentu honetan zeintzuk diren deskontuak eskaintzen dituzten denda eta zerbitzuak. Dendariak hala nahi izanez gero, merkealdia denean ez da aplikatuko deskonturik txartela erakusteagatik.

ZOKKETATAN PARTE HARTZEKO DEITU EGIN BEHAR DA

Eta deskontuez gain, hamabostero hainbat zozketetan parte hartzeko aukera ere badu txarteldunak. Horretarako gauza bakar bat egin behar da: 948 635458 telefonora deitu eta izena eman.

Txarteldunek badituzte deskontuak, desgrabazioak, zozketak eta aldizkaria doan

Ekainean bidaliko dira txartel berriak

Urtero bezala, txartel berriak prestatu eta bidaltzeko prozesua hasia da dagoeneko. Joan den urteaz geroztik txarteldun direnek, egun hauetan hartuko dute etxean karta bat honen berri emanez, eta horrekin batera, iaz ordaindutako kopuruak Errenta Aitorpenaren kuotan sortuko dien desgrabazioa zehazten duen ziurtagiria. Txartel bakarra duen titularraren kasuan, 40 euro ordaindu ziren iaz, eta desgrabazioa %20koa dela kontuan hartuta, 8 euro itzuliko diete aurten.

TXARTEL NAGUSIAK 40 EURO, ETA HAREKIN LOTUA DEN KIDE BAKOITZARENAK 6

Txartelak urte bateko balioa izaten du eta norberaren datu pertsonalak ditu inprimituak alde batean: izena eta bi deiturak, nortasun agiriaren zenbakia, iraungitze data eta txartelaren zenbakia. Arrazoi horregatik, bakarrik txartelaren titularra izan da Ttipi Txartelak ematen dituen eskubide eta abantailen onuraduna, eta dendaren batean erabiltzerakoan, nahitaezkoa izan da Txartelarekin batera nortasuna kreditatzen duen agiriren bat erakustea.

Aurten txartelaren prezioa ez da garestituko eta azkeneko urte hauetako prezio berean salduko da: txartel nagusia 40 eurotan eta familiako pertsona gehiagok ere baldin badu berea, seina euro gehiagoko bakoitzarengatik.



EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK

LITERATURA

Ttipi-Ttapa Telebistaren aldeko sinadura bilketa abiatu da

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimena izan da

ttipi-ttapa

Ttipi-Ttapa Telebista berriz ere Bortzirietako etxeetan egotea lortu arte, sentsibilizazio, atxikimendu eta salaketa ekimenak abiatu ditu Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. Helburu horrekin sinadura bilketari ekin dio Bortzirietan.

Martxoaren 14an, bertalde, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako herrietako euskara batzordeek deituta 200 bat lagun bildu ziren Etxalarren, *Euskarari erasorik ez!*, *Euskarazko komunikabideen defentsan*, *Ttipi-Ttapa Telebistaren alde*izenburupean egin dako kontzentrazioan. Ordu erdi batez isilean egin zen kontzentrazioa plazan, tartean borts herrietako udal ordezkariak zeudela. Beraiekin batera, kirola, kultura eta gizarte mailako hainbat pertsona ezagun ikusi ziren, bortz herrietatik, Sunbillatik, Malerrekatik eta Baztandik hurbildutako jendearekin batera.

EUSKARAREN AURKAKO HIZKUNTZA POLITIKA

Kontzentrazioaren akaberan, Pello Apezetxea Etxalarko Euskara



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Martxoaren 14an kontzentrazioa egin zenean, Pello Apezetxea mintzatu zen.

Batzordeko kideak eta **Ttipi-Ttapa Fundazio**ko patronatuko presidentek hartu zuen hitza. Apezetxearen erranetan, gertaera larria da **Ttipi-Ttapa Telebista** emisioa etetea, «*sekulako kezka eta ezinegona sorrarazi dizkiguna. Horren aitzinean, honako hau adierazi nahi dugu: Nafarroako Gobernuaren euskararen aurkako hizkuntza politika salatu nahi dugu ozen. Nafarroako Gobernuak, sortu zenetik, inoiz ez du euskararen aldeko jarrera izan, baina azken urteetan, hori aski ez eta euskararen aurkako hizkuntza politikari ekin dio buru-belarri, legegintzaldi honetan,*

Euskarabidearen moztaropean: lege bidez euskarari eta euskaldunoi ateak itxi, euskararen ezagutza ahal den neurrian oztopatu, hizkuntza paisaiatik euskara ezabatu, euskalgintza ekonomikoki ito... zoritxarrez adibide aunitz ditugu».

LIZENTZIEN BANAKETAN AUKERARIK GABE

Euskarazko hedabideei dagokienez, tokiko hedabideen aurkako erabaki edo oztopoak ez dira atzokoak gogoratu zuten Etxalarko Euskara Batzordeko kideak. Lurreko Telebista Digitalaren aroa ailegatzeaz da, «*eta tokiko hedabideen jarduna arautzeko eta li-*

zentiak banatzeko garaian, gure eskualde osoa, tokiko telebista izateko aukerarik gabe gelditu zen, bertako telebistak egoera irregular eta ezegonkorrean jardutera kondenatuz». Gainera, hedabideei zuzendutako dirulaguntzen murrizketak, %95ekoak, izan du bere lehenbiziko ondorioa, aise aurreikusi zitekeena, Apezetxearen errantean: «*Ttipi-Ttapa Telebistaren etena. Erabaki hori helburu argi batekin hartu dute, euskara eta euskalgintza itoztea, alegia, jakina baitzen tamainako murrizketak batek arrisku biziaren utziko zituela hainbat tokiko hedabide».*

Bidasoaldeko XXII. Bertso-paper lehiaketa abian

ttipi-ttapa

Bidasoaldeko Bertso-paper Lehiaketaren XXII. edizioa zabalik dago. Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso Eskolak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin Baztan-Bidasoaldea inguruan bizi direnentzat antolatu dute aurten ere. Jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak onartuko dira eta norberak aukeratu du gaia, doinua eta neurria. Hiru mailatan banatu dute lehiaketa: A mailan 12 urte arteko haurrek parte hartuko dute eta guttienez bi bertso edo lau koplak osatu beharko dituzte. B mailan 12 urtetik 18 urte arteko gazteak sarituko dira eta guttienez lau bertso egin beharko dituzte. C mailan, azkenik, 18 urtetik goitiko gazteek hartuko dute parte eta guttienez 8 bertso egin beharko dituzte. Bertsoak maiatzaren 1era arte bidali beharko dira helbide honetara: *Berako Kultur Etxea, Bidasoako XXII. Bertso-paper Lehiaketa, Eztegarapasealekua, 11, 31.780 Bera*. Sariak maiatzaren 15ean emanen dira, 18:00-etan Kultur Etxean.



BERA

Maratoi Erdian parte hartzeko 400 dortsalak borts egunetan banatu dira

Parte hartuko dutenen artean, punta-puntako lasterkalari ezagun ugari daude

tipi-tpata

Apirilaren 19an jokatuko den Mendi Maratoi Erdirako eskuragarri paratu ziren dortsalak bukatu dira. Manttale Mendi Lasterketa Taldekoek martxoaren 2an zabaldu zuten izena emateko epea eta borts egunetan dortsal guztiak agortu ziren. 400 partaidetako muga ezarri zuen eta bai erraz gaititu ere.

Guraso Eskola

Drogen prebentzio-rako planaren bame, gurasoek seme-alaben hezkuntzan gehiago sartzeko aukera izandezaten, Guraso Eskola izeneko lau saio antolatu ditu Udalak maiatzeko.

Saioak maiatzeko ortzegunetan izanen dira: maiatzaren 7, 14, 21 eta

28an. Bi talde osatuko dira, arratsaldez, bata 15:00etatik 17:00etara, eta 17:30etik 19:30era bertzea. Matrikula 25 eurokoa izanen da, eta bikoteak izena emanez gero, 40 eurokoa izanen da bien matrikula.

Guraso Eskola Hilario Garrudok gidatuko du. Garrudo psikologian lizentziaduna da Sala-

mancko Unibertsitatean, eta Psikologia klinikoan eta familia-terapian aditua. Eskarmentu haundia du jendearen prestakuntzan eta psikologogisa, droga-mendekotasunen arloan. EDEX elkartearekin lan egin ohi du, eta aditua da bizitzarako trebetasunak irakasten, betiere nerabezarozan izaten

diren arriskuei eta droga mendekotasunei aitzin egiteko.

Saio hauetan parte hartzeko epea astelehen honetan, martxoak 30, bukatzekoa zen.

Dirulaguntza suhiltzaileen parkerako

Nafarroako bertze zazpi suhiltzaile boluntarioen parkek bezala, Berakoak ere dirulaguntza jaso du 2009ko gastuei aitzin egiteko. Zehazki, Nafarroako Gobernua emandako 30.997,95 euroko laguntza izan du. Horrez gain, hemendik guttira, parkean ate metaliko bat paratzeko bertze ebazpenak etorriko direla iragarri dute Gobernutik.

Argazki erakusketa

Bera atzo izenburupean argazki erakusketa zabalduko du Rosa Mari Errandonea herritarrak ortziral honetan, apirilak 3. Hilaren 19a bitarte Kultur Etxean izanen da ikusgai, astartetik igandera. Goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 19:00etara egonen da zabalik, igandea arratsaldetan izan ezik.

EZAGUN AUNITZ

Izena eman dutenen artean, Fernando Etxegarai eta Jokin Lizeaga daude, iazko edizioan lehenengo eta hirugarren sailkatu zirenak, hurrenez hurren; Zuhaitz Ezpeleta ere herrian izanen dugu, joan den urtean Espainiako Kopan garaipea lortu zuena; Patxi Irazoki 2007an hirugarren gelditutakoa eta Arkaitz Zamakona, Enekoitz Aizpurua, Arkaitz Sodupe, Unai Santamaria... izanen dira.

Emakumezkoetan, Alizia Olazabalek parte hartuko du -2008ko irabazlea-, baita Jaione Sasieta 2006an hirugarren izan zenak, Kristina Arbués 2007an hirugarren sailkatutakoak eta Arantza Izagirre iazko irabazleak ere.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Soinketa Eguna apirilaren 16an

Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarteak bertze urte batez Soinketa Eguna antolatu du. Apirilaren 16an, ortzegunarekin, eginen dute. Autobusez Berara ailegatu ondotik, 12:00etan hasiko da soinketa erakustaldia kiroldegian. Ondotik, 13:45ean kiroldegitik autobusak aterako dira bazkaltzera joateko. 14:15ean Zalain eta Zubiondo jatetxeetan bazkalduko dute, bi kasuetan menu berdinarekin. Arratsaldean, 17:00etatik 19:45era dantzaldia izanen dute eta 20:00etan etxerako bidea hartuko dute. Izena emateko epea apirilaren 8an bukatuko da. Prezioa, berriz, 30 eurokoa izanen da.

ERREKALDE
PLAZA KONKURTATUAK
PANTAK
KURTSEK
TFONA: 948 630 259 6224

LABEZAR
Tel: 948 631 076 BERA

XITEL
Alde 1 - BERA
Tfona: 948 631 488

arropak - mairidireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Aldean, 3 - Tel: 948 630 083

LESAKA

San Fermin elkarteak Ultzama eta Lourdesera bidaiak antolatu ditu

Apirilaren 17an eta maiatzaren 8an izanen dira egun bateko ateraldiak

Aitor AROTZENA

San Fermin erretiratuen elkarteak Ultzama ateraldia antolatu du apirilaren 17rako. Irteera plazatik egingen da goizeko 8etan eta Irai-zozko gazta fabrika eta Lizaso eta Auza bisitatu ondotik, Goldarazen bazkalduko dute honako menu honekin: zainzuriak eta txistorra has-teko; ilar beltzak aza eta odolkiarekin, haragi zopa, ajoarriero, bildots edo zerrikuttina entsaladarekin, aretze-txuleta, eta kailatua edo gazta postrerako, dena ardoz, urez, kafez eta kopaz ongi hornitua. Bazkalondoan Lekunberri eta Leitza bisitatu dituzte, etxera bueltatu aitzinetik. Txartelak erretiratu elkartearen ostuan eros daitezke apirilaren 12a bitarte 26 euroren truke, baina kontuan hartu behar da barririk autobusa bete arte izanen dela lekua, beraz, lehenbailehen mugitzea komeni da.

Jubilatuak Lourdesera joateko asmoa ere badute maiatzaren 8an. Txartelak apirilaren 4an paratuko dituzte salgai, bazkideentzat 17 eurotan. Apirilaren 26a arteko epea izanen dute



ARGAZKIAK: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Txapela eta Txapelketa Nagusirako txartela lortu dute herriko hiru bertsolarik Nafarroako finalean Uzia ederra lortu zuten herriko bertsolariek martxoaren 21ean Elizondon jokatu zen Nafarroako Txapelketako finalean. Xabier Silveirak txapela jantzi zuen, seigarrena, inork lortu ez duena. Horretarako desenpatea jokatu behar izan zuen Julio Sotorekin. Nafarroako lau lehenbizikoek Euskal Herriko txapelketarako txartel bana zuten saritzat eta Silveira eta Sotorekin batera, Erika Lagomak (hirugarren) eta Iñigo Olaetxeak (laugarren) Txapelketa Nagusian kantatzeko eskubidea irabazi dute.

bazkideek txartelak eskuratzeko. Oraindik lekurik balego, bazkide ez direnek izanen dute Lourdesera joateko aukera, 20 euroren truke. Maiatzaren 8an, goizeko 7etan abiatuko dira plazatik eta 11etan meza izanen dute San Gabriel kaperan. Gurutzebidea egin ondotik, Florida jatetxean bazkaldu eta arratsaldea libre izanen dute, etxera bueltatu aitzinetik.

Ekitaldiz ongi hornitua dator apirileko kultur egitaraua

Apirilean kultur egitarau zabala izanen du gu herrian. Musika eskolak kontzertua eskainiko du hilaren 8an, 17:00etan udaletxeko pleno aretoan. Hilaren 18an, Bortzirietako bertso eskolak bertso saioa antolatu du Andra Mari Zahar Etxean 17:30ean. Apirilaren 25ean Gazte

Eguna antolatu dute Lesakako Gaztik taldeak eta egun berean, Javier Irazokiren *La nota rota* azken liburuaren aurkezpena egingen da udaletxeko pleno aretoan. Apirilaren 26an, azkenik, Tantirudantza jaialdia antolatu du Tantirumairu euskal folklore taldeak.

FLASH

Toki-Onako patioa ixteko eskaria

Berako Toki-Ona Institutuko Guraso Elkarte-ko zuzendariak sinatutako idatziarekin bat egin du Udalak aho-batez eta ikastetxeko patioa eskola orduetan ixtea eskatu dio Berako Udalari. Gurasoen idatziaren arabera, patioa irekia egotean, «*arriku larriak sortzen dira, kanpotik lasai ederrean edonor sartzen ahal delako gure gazteei edozein gauza eskaintzera edo saltzera*».

Krisi ekonomikoaz solasaldia Arranon

Krisi ekonomikoa: arrazoiak eta alternatibak izenburupean solasaldia eskainiko du Igor Arroyo LAB sindikatuko Nafarroako idazkariak apirilaren 3an, ortzira-lean, Arrano elkartearen Gogoratu behar da. egun berean, manifestazioa ere deitu duela LABek, 19:00etan.

Suhiltzaile parkeari laguntza

Lesakako suhiltzaileen parkeak 33.932,58 euroko dirulaguntza jasoko du urteko ohiko mantentimendu gastuei aurre egiteko. Honetaz gain, Nafarroako Lariari Agentziako (ANE) zuzendari nagusiak bertze parkearako ibilgailu bat erosteko erresoluzioa sinatuko omen du laister.



ETXALAR

141.768 euroko dirulaguntza eman dio Zapateroren Gobernuak Udalari

Baserrietara joateko bide batzuk moldatzeko erabiliko da dirua

Joseba eta Nerea

Estatu espainiarrak krisiari eta langabeziari aurre egiteko neurrien artean diru kopuru bat banatu du udaletxe gutietan. Dirulaguntza honi Toki Inbertsioko Estatu-Fondoa deitzen zaio eta Etxalarri 141.768 euro egokitu zaizkio. Diru honen izatera berezia da; aurrekontuetik kanpo dauden inbertsioak egiteko balio du bakarrik.

Udalak hainbat alditan dirulaguntza eskatu eta ukatu izan zaizkion baserri-bide batzuk moldatzeko erabiliko du. Honela bada, Antsone- Mendiondoko bordara doan bide zatia eta Joanperitzeneko bordara doana zolaberrituko dira eta Lurriztederra auzoan eta Urtzaileneko bordara doan bidean egonkor-

tze lanak eginen dira. Modu honetan, urtetan moldatu izan ezin diren pista hauek itxura berria hartuko dute. Ubiaria Excavaciones enpresak eginen ditu lan hauek.

Larraburuko Urdaiazpiko txapelketa

Joan den martxoan akabatu zuten Larraburua Elkarteko Urdaiazpiko Txapelketa. Honakoak izan ziren txapeldunak: Musean Jose Javier Zubieta eta Pello Apezetxea eta partxisean Juliana Elizalde eta Maria Esther Bereau. Musean azpitxapeldunak Santiago Mitxeltoarena eta Gaston Lestuzzi izan ziren. Irabazleek urdaiazpiko bana eraman zuten saritzat, eta bigarrenek urdaiazpiko sorbalda.



UTZITAKO ARGAZKIA

Besta handia San Jose Zurginaren Kofradiaren 150. urteurrena ospatzeko

San Jose Zurginaren Kofradiak bere 150. urteurrena ospatu zuen martxoaren 19an. Hildako bazkideen omenez eskainitako mezaren ondotik, bertan ziren kofradeek argazkia atera zuten, bandera beraiekin zutela. Gaur egun, 89 bazkide edo kofrade ditu San Jose Zurginaren Kofradiak eta Javier Indaburu eta Teodoro Iribarren dira maiordomo edo arduradunak, duela 25 urtez geroztik. Javier Indaburuk 77 urte ditu eta berak aipatu zuenez, 1846an sortutako Norberto Indaburu Berrueta bere ataxia izan zen Kofradiaren sortzaileetako bat. Geroztik bere atxa eta Martin anaia ere kofradeak izan dira, bera bezalaxe. Kofradiak 1866ko erregistro liburu gordetzen du eta bertan ageri denez, aitzineragoko liburu bat ere bazen, gaur egun galdua dena. Kofradiaren bertze ezaugarria bere bandera edo estandartea da. Normalean urtean behin ateratzen da, Bestaberri egunean, baina 150. urteurreneko ospakizuna handia dela pentsatuz, San Jose Egunean ere atera zuten, argazkian ateratzeko. Jorge Arizalek zeraman bandera eta zintak kontzen Martin Indaburu eta Miguel Maria Azkarraga zeuden. Urte osoan Maria Dolores Danborienak zaintzen du bandera. Argazkiaren ondotik, Elutsa ostatuan elkartu ziren bazkari ederren bueltan. Junta berritzea mahai gainera atera zen baina inork ez zuenez sartu nahi izan, Javier Indaburu eta Teodoro Iribarrenek segituko dute, bertze urte batez behinik behin, maiordomo eta arduradun lanetan. Bazkalondoko besta giroak berandura arte iraun zuen.

Argazkian Kofradiako kideak ageri dira. Tartean, lau emakume: Feliziana Zubieta, Mari Tere Iparragirre, Ixabel Bergara eta Klemene Unanue.

Martxoaren 14an afari ederraren bueltan ospatu zuten Larrabu-

rukoek lehiaketaren akabila. Urdaiazpikoa izan zen, nola ez, afa-

riko menuaren oinarria. Afalondotik, sari-banaketa egin zuten.

3Beko
NABETZARAKO BARRIOA
Fian Auzoa - LESAKA
Tfn: 948 637 826

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat pentzurik egokiak
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

XATURETXEA
ZABALA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak
LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA: Fian Auzoa - LESAKA - 948 637 271 - 626 404317
LINDDURRENBORDA: Fian Auzoa - LESAKA - 948 637 272

Javier Manterola
Tehnika instalazioak
Iurgintza - gasa
kalifikazioa
Tfn: 629449602 - BERA

José I. Gonzalez Enguita
pintura3
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

ARANTZA

Larunbat arratsalde honetan Korrika Kulturala egingen da

Herriko haur, gazte eta helduek herrian barna lasterkaldia egingen dute

Nerea ALTZURI

Gogoan dugu herria omendu zuten edizioa. Korrikak geroztik hiri, herri eta auzoetan barna milaka kilometro egin ditu euskararen alde. Duela 29 urte hasi zen AEK euskararen aldeko lasterkaldia antolatzen eta joan den martxoaren 26an Tuteratik abiatu zen 16. edizioa.

Astelehenean eskualdeko lurretan ibili zen eta hirurogeitik gora kilometro eta dozenaka lagun lekuko pasak izan ziren. Herriak ere ekarpena egin du eta Udalak, Ekaitza Elkarteak eta Gazte Asanbladak astelehenean lasterkaldian parte hartu zuten.

Gure herritik pasako ez bada ere, larunbat honetan, apirilak 4, Korrika Kulturala prestatu da. Herriko Eskolak, elkarteak eta Udalak esku hartu dute antolaketa lanean.

Arratsaldean herrian

barna lasterkaldia egingen da. Erroitzineko-borda eta Berganea

atariak, Herriko Plaza, Larreta auzoa, Dena jarnari-denda eta Goien-

buru aldea izanen dira puntuak. Ibilbidean zehar, helduek hartuko

dute lehendabizi lekuko eta gero Berganetik aitzinera eta Larreta aldeko eremu zelaian ttikienek hartuko dute. Ondotik, Goienburura joateko berriz ere zahartxoagoek hartuko dute ardura. Hala ere, seguro batek baino gehiagok ibilbide guziaz egingen duela!

Herrian barna lasterka ibili ondotik, txalaparta tailerra egingen da. Lerro hauek idazterakoan, duda mudako ekimena triki poteoarena da... Beraz, larunbaterako badakizue! Gonbidapena luzatua dago!

Zahar Txokoko kontuak

Urteko bilkura egin zuten joan den igandean, martxoak 29, Zahar Txoko elkarteak. Juntako kideek kontuen berri eman zieten bildutako bazkideei eta ondotik, denak elkarrekin bazkaria egin zuten Zahar Txokon.



ARGAZKIA: TTAPI TTAPA

Mozorro Besta giro ederrean

Mozorro Zuriak antolatutako Mozorro Besta joan den martxoaren 14ko arratsaldean iragan zen. Haurrentzako tailerrak prestatu ziren lehenik. Mezaren ondotik, berriz, herri kirol saioa izan zen. Ia Mozorro gehienek parte hartu zuten: txokor biltzea, lasterka, txinga eta ingude altxatzeak egin ziren eta taldeen arteko apostua izan zen. Segidan, 80 lagun inguru bildu ziren Aterpean afaltzeko, Xabier Legarreta eta Jexux Mari Irazu bertsolariak lagun zituztela. Goizaldeko ordu ttikiak arte iraun zuen bestak eta gorapean Agerralderekin dantzaldia izan zen. Hauek dira herri kirolean parte hartu zuten Mozorro Zuriak: Unai eta Eneko Ordoki, Jon Agilera, Iosu Iparragirre, Asier Apeztexea, Mikel Larretxea, Alberto Fagoaga, Joseba Pikabea eta Madariaga, Xabier Iturria, Julen Oskoz, Daniel Iparragirre, Imanol Lukanbio eta Xabi Larretxea.

iparra

Bad Iparragirre Alzai FISIOTERAPISTA

Bikarretako misak
Kardel Inesak

00 33 559 48 19 32

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Sukalderako altzariak

Bereau etxea • LESAKA
Tel: 948 637 200 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

GIZARTEA

Udan Saharako haurrak hartzeko deia egin du Saharaztan taldeak

Apirilaren 14an bukatuko da izena emateko epea

ttipi-ttapa

Uda honetan Saharako haurrak etxean hartzeko deia luzatu du Saharaztan erakundeak eta hala egin nahi dutenek apirilaren 14ra bitarteko epea izanen dute izena emateko. Horretarako, **Baztanen** interesatuak daudenek 948 452372 telefonora deituta eman beharko dute izena; **Malerrekek** 948 451 787 telefonora deitu beharko dute eta **Bortzi-**

rietakoek 690 687990 telefonora.

Jakina denez, Euskal Herri osoko herrietara hainbat eta hainbat haur saharar etortzen dira bertako familiekin uda pasatzera. 14 urte inguru pasatu dira Saharaztanek Saharako haurrak ekartzeko ekimena martxan jarri zuela. Joan den urtean, erraterako, gutxira 11 etorri ziren Baztan, Bortziariak, Malerreka eta Leitzaldera. Due-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean gure inguruan uda pasatu zuten Saharako neska-mutikoak, etxean hartu zituzten familiekin.

la bi urte, berriz, gehiago, 14. Ekainean etorri eta abuztuan hartu zuten etxerako bidea.

Ofizialki, 7 eta 12 urte arteko haurrak har daitezke etxean. Halere, zenbait kasutan bertze adinekoak ere etortzen dira.

Saharako basamortuan dauden errefuxiatuen kanpamenduetan, udan egiten duen bero jasangaitza dela eta, batez ere haurrak dira kalte-tuenak. Hala, udako hila bete beroenak goxoa-go pasatzeaz gain, euren herrian jaso ezin di-

tuzten zerbitzuak eskaintzen zaizkie hemen Saharako neska-mutikoei.

Bide batez, Saharako herriaren egoera zein den ezagutaraztea ere bada Saharaztan elkar-te sortu berriaren helburua.



IRIBARREN zurgindegia


Fabrikazioa salmenta instalazioa



Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
Tel./Faxa: 948 635 071



Ebaketa Horizontala



- EGURREZKO LEIHOAK, "CTE" BERRIA BETETZEKO MODURIK ERRAZENA
- **CE** ZERTIFIKAZIOAREKIN
- ISOLAMENDU TERMIKOA
- NATURALA, GOXOA ETA SENDOA
- ENERGIA AURREZPENAK
- AIRE KAMERADUN KRISTALAK
- ISOLAMENDU AKUSTIKOA
- EGURRA, ERAIKUNTZAKO MATERIAL NATURAL BAKARRA
- INGURUNEA: "CO₂" EMISIO GUTXIAGO, BIRZIKLAGARRIA ETA BIODEGRADAGARRIA

Gure leihoa, zure leihoa, denon leihoa, egurrezkoa!

ITUREN

Eskolari izena eta logotipoa emateko egin diren lanak hilaren 8an paratuko dira ikusgai

Asteazken honetan akitzekoa zen lanak aurkezteko epea

Arkaitz MINDEGIA

Eskolari izen bat jarri eta horren adierazgarri izanen den logotipo baten bila dabilta eskolan. Horren harira, deialdi bat egitea erabaki zuen eskolako Hezkuntza Komunitateak, hau da, ikasle, guraso, langile, Udala eta Kultur Taldeak. Asteazken honetan, apirilak 1, akitzekoa zen proposamenak aurkezteko epea, eta behin hori pasatuta, hurrengo astean, hilaren 8an, eskolako sabaian deialdiak aurkeztutako lan guztiak ikusgai paratuko dira.

Sabaian paratzean, nahi duenak bere botoa emateko aukera izanen du eta gisa horretara, boto gehien jaso dituzten hiru lan aukeratu dira. Azken erabakia Eskola Kontseiluak hartuko du.

BALDINTZAK

Martxoaren 16an egin zuten deialdi hau eskolatik, eta hasieratik

argi adierazi zuten ez dela lehiaketa bat, eta ez dela saririk banatuko. «*Honen asmoa de non parte-hartzea bul-tzatzea da*».

Logotipoa egiteko, Iturengo eskolan hain-

bat herritako ikasleak elkartzen direla kontuan hartzeko eskatu zuten, edo «*egunen batean eskola berria eraikiko den parajearen ezaugarrien bat islatzen duena izatea*».

Izenak, berriz, hitz bakarra edo gehienez ere bi izatea eskatu zuten.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eskolara joan behar da edo 948 451554ra deitu.

Aste Santua gainean

Aste Santurako aste bat bertzerik ez da falta eta dagoeneko dena prest dute herriko landa-etxe, jatetxe eta ostatuek. Gure inguruko bertze txokotan bezala, Iturenen ere badago zer ikusi eta zerekin gozatu: Trinitateko ermita, Joaldunen Bidea, Uraren bidea... Badakizue, Aste Santuan planik ez baduzue, hona hemen proposamen batzuk.

Biztanleria goiti

Gorabehera batzuekin, baina azken urteotan, biztanleriak goiti egin du Iturenen. Hala dela ikus dezazuen, hona hemen datuak:

URTEA	BIZTANLERIA
2004	472
2005	473
2006	481
2007	477
2008	481
2009 (martxo)	497



ARGAZKIA: ESKOLA

Oporrak hartu aitzinetik ekitaldiak eskolan

Apirilaren 8an, Aste Santuko oporrak hartu baino lehen urtero bezala, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte eskolan. Logotipo aukeraketa, herri kirolak, zozketa... Eta ondotik, gosari ederrarekin oporrak hartuko dituzte. Guraso Elkarteak antolatutako zozketaren sarien irabazleak hurrengo aldizkarian jakinaraziko dira.

Lizardi
Telekomunikazioak

TDT Instalazioak
TB Instalazioak (satelite, lurrekoak)
Instalazio indibidualak eta kolektiboak
Portero automatikoak
Ebeko hari musikala

Tel. 670 415 720
joanlizardi@hotmail.com

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ERROTAZAR
harategia

Biertako produktua

Eztegera, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

SUNBILLA

Rakel Urtxegi izanen da Ulibeltzak Elkarteko lehendakari berria

8 emakumez osatutako Zuzendaritza Batzordea izanen da datozen bi urteetan

Jaione OTXANDORENA

Martxoaren 14an egin zen Ulibeltzak Elkartearen Zuzendaritza Batzordea berritzeko bilera. Gaur egun, Elkarteak daukan 192 bazkideetatik 30 inguru bakarrik azaldu ziren bilera, beraz, parte-hartze eskasa. Hala ere, bilera-ko helburua betez, joandako bazkideek botaketak egin zituzten Zuzendaritza Batzorde berria nork osatuko zuten erabakitzeko. Zortzi izen atera ziren eta bitxia bada ere, datozen bi urteetako Ulibeltzak Elkarteko Zuzendaritza zortzi emakumez osatua egonen da: lehendakaria Rakel Urtxegi izanen da; lehendakariordea Edurne Urroz; diruzaina Maider Petrirena; idazkaria Miren Hernandorena; eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ulibeltzak Elkarteak 25 urte bete zituenean, bazkideei ateratako argazkia.

bokalak Josune Antzizar, Maria Jesus Iriarte, Edurne Zubieta eta Maria Jesus Rekarte.

Urteetako ohiturari jarraituz eta kargu aldaketa egiteko, martxoaren 21ean afaria egin zuten orain arte Zuzendaritzan egondako bazkideek eta

datozen bi urteetan egonen direnek Elkartearen egoitzan.

Eskolako ateraldiak

Martxoaren 17an eskolako 3, 4, 5, eta 6. mailako gaztetxoak Altuzako Oteiza museora

ateraldia egin zuten. Goizen museoa ikusi eta arratsaldean Artic izotz jauregira joan ziren.

Txikienak, berriz, 2. mailara artekoak, ortzira leantean, erraldoi eta buru-haundiak ikusterako joan dira Iruñera eta arratsaldean Txiki Parkera..

Asteburu Kulturala eta Korrikaren berri

Ttipi-Ttiparen ale hau idazterakoan oraindik ez genuen Asteburu Kulturalak eta Korrikak emandakoaren berririk. Beraz, hurrengo alean emanen ditugu xehetasunak.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi funutak
albomozak
edredoi nordikoak
ohie estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

2009ko udaberriko kolekzio berria

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

DONEZTEBE

Eskola ondoko bidegurutzean biribilgunea egiteko hitzarmena sinatu du Udalak

Autobus geltokia ere biribilgune berriaren ondoan jarriko dute obra egiterakoan

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako Departamentuak eta Udalak zeharbidea moldatzeko elkarlan hitzarmena onartu dute. Martxoaren 16ko bilkuran izan zen hori.

Hitzarmenaren arabera, eskolaren ondoren, biribilgune bat egingen da, bidegurutze horrek duen trafikoa hobeki arautzeko baliagarria izanen dena. Zeharbide berean dagoen autobus geltokiaren eremua ere aldatuko da.

394.000 EUROKO AURREKONTUA

Lan honen hasierako aurrekontua 393.748,06 eurokoa da. Nafarroako Gobernuak 282.408,47 euro ordainduko ditu (138.190 euro aurten eta bertze 144.218,47 euro 2010ean) eta gainerako 111.339,59 euroak Udalak berak ordaindu beharko ditu.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Eskolara, Zazpigarutze auzora eta Elgorriaga aldera joateko bidegurutze honetan biribilgunea egingen da.

LANAK UDALAK KUDEATUKO DITU

Onartutako testuaren arabera, Doneztebe Udalak arduratuko da lanak egiteaz, eta hauek egiteko behar diren ondasunak edo esakuntzak hartzeko beharrezko izapideak egiteaz. Gisa berean, Udalarena izanen da lanen zuzendaritza teknikoa ere, baina Herrilan Departamentuaren Kon-

tserbazio Zerbitzuak gainbegiratu egingen du obra.

Gaur egun, Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidean, Leitza aldera zubia pasatu eta eskolaren ondoren dagoen bidegurutzeak zenbait adar ditu: Osasun Zentro aldera, Enplegu Bulego aldera, etxebizitza berrietara, eskolara, kiroldegira... Horrek trafiko han-

dia eragiten du eta horri aterabidea ematera datoz obra berri hauek.

Biribilgune berriekin, mugimendu guztiak ordenatzea da helburua eta bideko segurtasuna hobetzea. Aldi berean, gaur egun herri-gune erdian dagoen autobus geltokia ere biribilgune horretara aterako da eta oraingo geltokia aparkalekuak egiteko aprobetxatuko da.

Biribilgunearen kanpoko erradioa 15 metrokoa izanen da eta erdian 6 metroko erradioa duen irilatxoa izanen du. Metro eta erdi zabalerako espaloia ere egingen da.

Errekako seniorrek partida bakarra falta dute

Liga akitzeko partida bakarra gelditzen zaio Errekako talde seniorrari. Denboraldi bikaina egin du eta lehen posturik eskuratuko ez badu ere, sailkapenean bigarrena izan daiteke. Asteburu honetan Barañaingo Lagunak taldearen kontra jokatuko du etetik kanpo eta hortxe erabakiko da liga.

Bertzalde, maiatzean 20 urte beteko dira Errekak liga lehenbizikoz irabazi zuenetik. 1989an izan zen, taldea Txomin Mindegia eta Luis Goñiren aginduetara zegoela.

STIHL eta VIKING aukeratzen duzunean makinarik hobereana baino askoz ere gehiago eskuratuko duzu.

Zure lorategirako behar duzun guztia zuregandik oso hurbil dagoen STIHL eta VIKING-en Banatzaile ofizialean aurkituko duzu

BANATZAILEA

José Luis San Miguel

DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711

DONAMARIA

Larunbatean sagardotegira joateko autobusa antolatu dute gazteek

Eguerdiaren frontoitik aterako da, handik Astigarragara joateko

ttiipi-ttapa

Inguruko bertze toki aunitzetatik bezala, Donamariatik ere autobusa antolatu dute gazteek sagardotegira joateko. Larunbat honetan, apirilak 4, 12:30ean aterako da autobusa frontoitik, eta handik Astigarragako Alorrenea sagardotegira joanen da han bazkaltzeko.

Estatuaren laguntzarekin Sasoik eginen ditu lanak

Espainiako Gobernuak emanen duen dirulaguntzarekin egitekoa den eraikin berriaren lanak lehiaketara ateratu ondoren, Udalak Sasoi Eskabazioak enpresari esleitu dizkio obrak. Gobernuak iragarritako dirulaguntza kopurua mantenduz eginen dira lanak, 74.335 euroko aurrekontuarekin, hain zuzen.

Bere garaian iragarri bezala, eraikin ho-



ARGAZKIAK: ITXASNE LASAGA

Sagardotegira egin diren orain arteko ateraldietan bezala, aurren ere ez da umorerik faltako.

rrek bi solairu edukiko ditu: behekoan aldagelak izanen ditu eta lehenbiziko solairuan erabilera anitzeko lokala.

Obrak udan hasiko dira eta urtea akitu aitzinetik bukatuak egon beharko dute.

Korrikaren alde kilometroa

Astelehen honetan,

martxoak 30, pasatu zen Korrikaren 16. edizioa eskualdetik. Ez zen Donamariatik igaro, baina ekimenarekin bat eginez, Udalak kilometroa erosi zuen ibilbidea Sunbilla parean pasatu zen tokian.

Patinaje eta pilota ikastaroa larunbatetan

Urtero bezala, aurren

ere abian dira patinek ibili eta pilotan aritzeko ikastaroak. Larunbatero frontoian biltzen dira, 17:00etan pilotan aritzeko eta ordu bete beranduago, patinetan ibiltzeko.

Herritarrek dira erakusten ari direnak eta parte hartu nahi duenak ordu horietan frontoira agertu bertzerik ez du egon beharko.

ARRANTZA

Izokinak arrantzatzeko denboraldia zabalik

ttiipi-ttapa

Asteazken honetan, apirilak 1, zabaltzekoa zen izokinak arrantzatzeko denboraldia Bidasoa ibaian eta uztailearen 19ra arte iraunen du, aitzinetik 60 aleko kopurua gainditzen ez bada. Hala balitz, hor bukatuko litzateke denboraldia. Arrantzale bakoitzak kanbera bakarra erabiltzen ahal izanen du eta gehienez ere, eguneko izokin bat arrantzatu. Egutero arrantzatzen ahal izanen da, jai ez diren asteartetan izan ezik. Arrainen neurriari dagokionez, guttienez 40 zentimetrokoa izan beharko du, eta tikiagoa baldin bada, berriz uretan utzi beharko da izokina. Doneztebetik Endarlatsarainoko tartean eta Bidasoa ibaira doazen adarretan arrantza daiteke.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonoak ☛ Nekazariak eta mendi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontratutarako laguntzak ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diru-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta aitortpenak ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☛ Bidagarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxo: 948 637 050
BURLATA: Lo Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713

bentamiguel

denda, jatetxea eta ostalua

Ging. zehaztutako sukaldaritza

Menuak aukeratu

Tabakoa
Likorrak
Janaidenda
Urdailegia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

URROTZ

Udalaren kontuak 77.750 euroko superabitarekin itxi dira 2008an

Aurtengo gastuei begira, udal plana berri nahi da

Joseba URROTZ

2008ko kontuak berrikusi eta 2009rako aurrekontuak zehaztu zituen Udalak orain dela aste batzuk. Horren arabera, iaz 238.941 euro gastatu ziren. Kopururik haundienak mendian gastatu ziren: 44.000 euro inguru. Bertze 24.000 euro inguru nekazaritzako azpiegituretan joan ziren, hau da, bideetan hormigoia botatzen batez ere.

Sarrerak, berriz, 316.688 eurokoak izan ziren, garrantzitsuenak Nafarroako Gobernuo Nekazaritza Sailetik hartu ziren laguntzak izan ziren, 58.000 euro, hain zuzen. 30.000 euro mendiko lanetarako jaso ziren eta Ingurugiro Sailak 10.700 euro eman zituen Leurtzan mantentze lanak egiteko.

Gastuak eta diru-sarrerak kontuan hartuz, 77.747 euroko superabitarekin itxi zen 2008a.

2009KO GASTUAK ETA SARRERAK

2009ari begira, Udalak aurreikusitako gastu garrantzitsuenak hauek dira: 17.000 euro inguru mendiko la-

netarako, eta 60.000 euro udal plana berri-tzeko.

Sarrerei dagokienean, 48.000 euro jasoko dira udal plana berri-tzeko, eta bertze 11.300

euro mendiko lanetarako hartuko dira.

Aurten ez da nekazaritzako azpiegituretan lan eginen, Nafarroako Gobernuak ez baitu dirulaguntzarik emanen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Leurtzako zaintzaileak aukeratu dira

Sanjose aitzineko astean egin zen aurtengo denboraldian Leurtzako urtegieta zaintzale arituko diren langileen aukeraketa. Beti bezala, Urrotzeko bat eta Beintza-Labaiengo bertze bat aukeratu ziren. Bertzalde, aipatu, jende mordoxka ibili zela Sanjoseko zubian, eguraldi ederrak lagunduz gainera. Uholdeek eragindako kalteak ere konponduak zeuden bisitariak etortzerako.

BERTIZARANA

Arcelorren lurrak erosiko ditu Gobernuak

ttipi-ttapa

Bere garaian, iragarri bezala, Arcelor Mittal multinazionalak Legasan duen lantegiko produkzioa Berriobeitira eta Lesakara lekualdatuko du. Baina hori 2011etik aitzinera izanen da. Bidasoa Planaren barne dago sartua hori guztia, 35 milioi euroko inbertsioa aurreikusia duen planaren barne. Legasakoa itxita, orain fabrika dagoen lur eremua Nafarroako Gobernuak erosiko du. Joan den urtean asmo hori zuela jakinarazi zuen Gobernuak, eta martxoaren 24an gauza berare berretsi zuen Jose Maria Roig Berrikuntza, Enpresa eta Lan kontseilariak, Parlamentuan Nabaik egindako galderari erantzunez. Gaineratu zuenez, lantegia hortik kendu arte Gobernuak ez da hasiko erosketarekin. Gobernuaren esku dagoen eta industrialden propozioaz arduratzen den Nasuinsa enpresak kudeatuko du erosketa prozesua.

LEGARRA

Produktu batzuetan kolore baikoitzak bere deskontua du:

DESKONTUAK

- -60% eta -50%
- -40 % oparietan
- -30 %
- -20 % oparietan

Tel/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

BERA Zere legarra klase gurietako inaktuz (xomarro, zinoarre, arriarrea, kokoro...)

eta erretor xagotuz garbitu euli bodeza, deitai Ternita eta Pipien tratamenduz.

dgriEKO Industria Gartikoen Produktuak

Tel: 948 625 567 • Zalaia, 42 A • BERA

ZJ

14 logela bainu eta TBrekin

Zalaia auzoa z/g

Tfnoa: 948 63 09 67

BERA

jatetxea - hostala

ttipi
ttapa

☎ (0034) 948 635458

EZKURRA

2010ean herriko mapa bukatua egon dadin lanak hasi dira

Martxoaren 20an lau lagunek mugak berrikusi zituzten

Fernando ETXEBERRIA

Leitzan eta Goizuetan bezala, Ezkurrako mapa bat egin nahi da eta helburu horrekin, Fernando, Karmele, Juan Jesus eta Pello herriko lur eremuetan barna itzulia egin zuten martxoaren 20an.

Goizean, 7:00etan abiatu ziren Txantxangorri ehiztariaren txabolatik. Perralekuko pistan barna igo ondotik, Olako bordara jautsi ziren, Ittola aldean barna. Inguru horretan Amokonea eta Aierdi borden aztarnei argazkiak atera zizkieten. Malda gogor bat igo ondotik, Katalinea eta Etxeberrira artean dagoen baserrian hartu zuten atseden.

Kasteneako borda gurutzatutakoan, Eratsungo lurretan sartu ziren, eta Iruñarriko mendi-hirra edo iruinarrira ailegatu ziren.

Monumentu megalitiko hau Eratsungoa da,

eta hori ongi gogoan dute herritarrek. Bere inguruetan 12 megalito baino gehiago aurkitu dira, baina zoritxarrez, ez zaie kasurik egin.

Ezkurransartuz, Olegiko harrespilari erreparatu eta Ezkain eta Erakurrira igo ziren. Aipatzekoa da, zenbait mapetan mendi hau Irakurri izenarekin ageri dela, baina herritarrek ez dute inoiz horrela erabili, Erakurri edo Eakurri baizik.

Bideari jarraituz, Urdizko harritik barna Makotsolara jaitsi ziren eta eguerdirako Ollinera ailegatu eta hemengo hondakinak ikusi zituzten.

OLLIN, EKONOMIKOKI GARRANTZITSUA

Auzo honek bi garai ekonomiko garrantzitsu eduki zituen. XIX eta XX. mendeetan fluorra, espataua, piritia, beruna eta zilarra bezalako mine-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Fernando, Karmele, Juan Jesus eta Pello martxoaren 20ean egindako itzulian.

ralak atera ziren. Lehenaogotik, berriz, 1328tik aurrera, bi burdinola jarri ziren martxan eta 1586an euren garairik oparoena ezagutu zuten. Europako iparralderako, Ameriketarako eta militarren itsasontziatarako lan asko egin zen.

SEI ORDU ETA ERDIKO BUELTA

Ibilbideak sei ordu eta erdi iraun zituen, eta gainerako itzulia hurrengo baterako utzi zuten.

Dena den, Leitza, Beruete, Eratsun eta Goizuetarekin dauden mugak berrikusi ahal izan zituzten, eta egunari behar bezalako segida emateko, Goizuetako Umore Ona Elkartean bazkaldu zuten, Juan Ignacio Apezetxea eta bere emazteak prestatuta-

ko bazkari eder batekin. Lerro hauen bidez, eskerrik asko.

Bide batez, esan, Nafarroako Kutzaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* programaren bidez, mapa egiteko dirua bildu nahi dela, baina hori hurrengo urtean izanen da. Mapa ere 2010erako akitua izatea espero da. Aurtan, *Zuk aukeratu, zuk erabaki* egitasmoarekin 7.950 euroko laguntza jaso nahi da erlojua konpontzeko. Dagoeneko, Ezkurra, Eratsun, Leitza, Doneztebe eta Iruñeko Nafarroako Kutzako 156 bezero egin dute proiektu honen alde eta eskertzekoa da.

Larreak erretzea

Eguraldi ona egin duela probestuz, azken

asteotan herritarrek larreak erretzen ibili dira. Baina behar diren neurriak hartzen ez diren gertatzen den bezala, azken ordukoak izan dira. Pinu pribatu batzuk erre dira eta horrek haserre eragin ditu.

Obra berriak

Espainiako Gobernuaren 32.920 euroko subentzioari esker, Elizaren azpian dagoen paretza zabaltzeko erabakiak erabaki dira, kamioiak errazago pasa daitezkeen. Obrak esleitzeko Udalak zabaldu dituzten lehiaketara lau enpresa aurkeztu dira: Sasoi, Ezkain, Elizaga eta Mariezkurrena. Baina lanak azken honek eginen ditu, eskaintako baldintza hoberenak bereak izan baitira.

CAMELOT PARK
2 SARRERA
TXINGUDI ALCAMPO • IRUN
943 626 216

BIDALI
tipi saskia
5767

APARAN, S.A.
BOIXOLALA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

HONDAKINAK

Krisiaren ondorioz, aitzineko urtean baino hondakin guttiago bildu da 2008an

Nafarroa osoan baino gehiago birziklatzen da eskualdean

ttipi-ttapa

Papera eta kartoia, enbaseak, beirak, etxe-ko hondakin bereziak, neurri haundiko trasteak eta siloetako plastikoak. Azken urteotan birziklatze kopurua gorantz bazihoan ere, zenbait tokitan, 2008an ez zen hala izan. Adituen arabera, krisia dago tartean. Guttiago kontsumitzeak zabor guttiago eragiten baitu. Aldi berean, aipatu, Nafarroa osoan baino gehiago birziklatzen dela gure inguruan.

PAPERA ETA KARTOIA

Eskualdeko edukiontzietan milioi kilo paper baino gehiago bildu zen iaz, 1.295.340 kilo. Bortziritan jaso zen gehiena, baina 2007an baino guttiago. Baztanen ere aitzineko urtean baino guttiago bildu zen; Malerreka eta Leitza, ordea, gehiago. Arano, Areso eta Goizuetan, oraingo ez da paper eta kar-

toirik biltzen.

BEIRA

Beira ere aunitz bildu zen, milioiaren gainetik: 1.224.013 kilo. Baina Baztanen eta Bortziritan 2007an baino kilo guttiago jaso ziren. Malerrekaren eta Leitzaaldean, berriz, gehiago.

NEURRI HAUNDIKO TRASTEAK

Emauseko Traperoek jasotzen dituzten neurri haundiko trasteak dagokienez, 358.532 kilo bildu ziren. Bai Baztanen, bai Bortziritan, bai Malerrekaren eta bai Leitzaaldean ere, 2007an baino guttiago bildu zen joan den urtean.

SILOETAKO PLASTIKOAK

Siloetako plastikoak kasuan, 51.510 kilo bildu ziren Bortziritan, Baztanen eta Malerrekaren, eta Bortziritan izan ezik, 2007an baino gehiago bildu ziren 2008an.

Leitzaaldean ez da siloetako plastikorik biltzen.

ENBASEAK

Enbaseetan, guztira 258.640 kilo bildu ziren Baztan, Bortziriak eta Malerrekaren, eta hiru kasuetan goiti egin zuen kopuruak. Aipatu, Leitzaaldean ez dela enbaserik biltzen.

HONDAKIN BEREZIAK

Hondakin bereziei dagokienez, 15.190 kilo bildu ziren eta Bortziritan izan ezik, gainerakoetan beherantz egin zuten 2008an kopuruak.

PILAK

2.225 kilo pila ere bildu zen 2008an inguruan, gehiena Bortziritan.

DATUAK

Ondoko taulan 2007an eta 2008an Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Leitzaaldean birziklatzeko zenbat hondakin bildu zen ageri da.

2007 ETA 2008KO DATUAK

PAPERA ETA KARTOIA

	2007	2008
Baztan	308.932	306.082
Bortziriak	564.454	556.079
Malerreka	194.844	207.799
Leitza*	194.600	225.380

*Arano, Areso eta Goizuetako daturik ez dago.

ENBASEAK

	2007	2008
Baztan	80.354	85.657
Bortziriak	111.561	116.753
Malerreka	46.125	56.230

*Leitzaaldean ez da bilketarik egiten.

BEIRA

	2007	2008
Baztan	300.953	288.390
Bortziriak	375.979	363.797
Malerreka	175.822	206.246
Leitza*	165.270	265.580

*Aresoko daturik eta Aranoko 2008korik ez dago.

HONDAKIN BEREZIAK

	2007	2008
Baztan	4.132	3.347
Bortziriak	4.254	5.223
Malerreka	3.459	3.005
Leitza*	4.086	3.615

*Arano eta Aresoko daturik ez dago

*Goizuetako 2008ko daturik ez dago.

NEURRI HAUNDIKO TRASTEAK

	2007	2008
Baztan	108.818	100.655
Bortziriak	178.312	177.051
Malerreka	64.431	60.306
Leitza*	30.770	20.520

*Arano, Areso eta Goizuetako daturik ez dago.

SILOETAKO PLASTIKOAK

	2007	2008
Baztan	19.760	25.292
Bortziriak	7.365	3.830
Malerreka	12.560	22.388

*Leitzaaldeko daturik ez dago.

PILAK

	2007	2008
Baztan	-	505
Bortziriak	-	1.180
Malerreka	-	190
Leitza*	706	350

*Areso eta Aranoko daturik ez dago

*2008koak Leitzaoko datuak dira.

udana
salazones

LINE-EN-ISO 9001
LAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
BCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest


Alkaiaga Ind. - Barrota, 8 - 23 patibioia - LESAKA - Tfno: 948 631 536 - Fax: 948 631 550



MODA GEHIGARRIA
UDABERRI-UDA KO MODA 2009

HAURREN MODA
EMAKUMEEN MODA
MAKILLAJEA ETA ORRAZKERAK
GIZONEZKOEN MODA
QINETAKOAK

HAURREN MODA 2009



Udaberri-udako haurren arropa kolekzioan kolore biziak neutroekin konbinatzeko apustua egiten dute.

Haurrentzako jantziak haundiak, zabalak eta erosoak dira eta hauek baggy estiloko galtzekin eta bonbatxoekin konbina daitezke.

Gehien nagusituko direnak kolore neutroak dira, errate baterako txuria, grisa eta kaki koloredun jantziak, berde edo urdin ilunarekin konbinatuko dira.

Etxeo ttikientzat, marra duten estanpatuak ikusiko ditugu, adibidez jertse eta galtzamotzetan.



**NESKEN JANTZIEYAN
TELA LISOAK
ESTANPATU DISKREYU
ETA KOLORE ARGIEKIN
KONBINATUKO DIRA
ETA ZILAR KOLOREKO
SANDALIEK EZIN DUTE
HUTSIK EGIN.**

MUTIKOETAN KOLORE ARGIKO GALTZAMOTZ ZABALAK MARRADUN
TXAKETEKIN KONBINATUKO DIRA ETA GALTZA LUZEAK PITILLO
ITXURAKOAK BIHURTUKO DIRA.



Bidasoa, 41
BERA
Tel. 948 630 560



Hondartzako jantzi-jokoak:
- Neskentzat soinekoak bikini edo bainujantziarekin.
- Mutilentzat kamiseta bainujantziarekin

Bixerak eta txapelak

Pijamak

Arropa estilo guztiak:
Klasikoak, modernoak...

Ospakizun berezietarako arropa



confetti

tuc
tuc

akrkids

KARPI

Pastello

EMAKUMEEN MODA

ALI BABA ITXURAKO BONBATXO GALTZAK ERAMANEN DIRA



Skunk funk
Billabong

Dragon
Oxbow

Quick silver
Rip Curl

Animal

Loreak Mendian
IBARDIN 948 630716

2009ko udaberri-udako moda joeraren araber, Ali Baba itxurako bonbatxo galtzak eramanen dira, baita turbanteak, tunika itxurako korteak, djellabak eta marrazki etnikoak ere.

Bertze kulturekiko irekiera ttiki bat somatzen da udaberri-udako joeretan. Diane von Furstenberg, Emilio Pucci, Chloé edo Etro diseinatzaile handieen moda kolekzioen artean Ali Baba itxurako bonbatxo galtzak, djellabak eta turbanteak erakutsi dituzte Milan, Londres, Paris, New York eta Madrilko pasareletan.

Erregetzako emakume batzuk, Jordaniako Noor edo Salma Benanik, modaren azken tendentziei begira dagoen *glamourez* betetako emakume dotorearen irudia esportatzeaz arduratu dira.

Duten erosotasunarengatik dira ezagunak mairuen jantziak, baina baita bere oihalen dotoreziarengatik ere: zeta, raso, %100ean naturala den kotoia, etabar... Arabiar estiloko osagaiekin konbinatzen ahal dira, distira doratuekin, zapata takoidunak edo takoi gabeak... bertze estiloetako jantziekin *look* hori ez haustea izanen da garrantzitsuena.



Lila eta aran kolorearen aukera zabala aurkituko dugu merkatuan, baina horiekin batera beige kolorea, beltza eta moratua ere aunitz ikusiko dira. Tulipanen forma duten berokiak ere ikusiko dira, mauketan bolumen handia dutenak, *tweed* txamarrak, kardiganak gerrikoarekin...

Egunerokoan, jantzi erabilgarri eta erosoak ikusiko dira, eta tartean bakeroak. Neguan kanpai formako galtzak berriz ere modan egonen dira, baina pitilloak ere ez dira tokirik gabe geldituko. Lehenengoek takoi altu batzuekin altu eta argalagoaren sentsazioa areagotzen dute; bigarrenek, berriz, emakume argaletan ohikoagoak dira.

Dotoreago jantzi nahi den momentuetarako ere aukera ugaria aurkituko dugu merkatuan. Hala nola, soineko luzeak eta erromantikoak, bolantekin. Urre-koloreko osagarriak aukeran, luma arrastoak... Gerri-aldea markatua ikusiko da.

Faltatu ezin duten jantzien artean, trikotazko soinekoak proposatu dituzte hainbat moda etxek. Edozein botarekin jantzeko aproposak dira, erosoak eta sinpleak. Hori baita, azken batean, emakumeek nahi dutena, erosoak izatea.



OSIÑA
Jantziak eta
Bilakak

Albistur, 3-behea
LESAKA
Tel. 948 637 951

Lulu

38tik 64a bitarteko neurriak

Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik • IRUN
Tel. 943 616 165



edr¹gunea
 Ainhoa Azpiroz
 Estetista

Lasera • Solariuma
 Depilazioak • Makillajea
 Aurpegiko tratamenduak
 Gorputzeko tratamenduak
 Opari baleak
 Begien edertzea

Ebateren 67 beheko • LERZA • T. 948 510 273 • edg.neral@yahoo.es

BL
arropa-denda
 BEOLA ETXEA
 Ibaringo gaina, 30 • BERA • Tel. 948 630 709

Haur, gazte eta helduentzako
 Moda-modako jantziak

Cartier **KENZO** **BOSS**
 HUGO BOSS

Payot Benetton **Bench.** anaristotenen


IKKS Lolita Limpicka **GIORGIO ARMANI**



BIKINIEN JOERAK

Bikinia jantzi nahi duzu uda honetan? Eguzkiak berotzen hasi duen honetan, ur pixko bat gustora hartuko genuke, ezta? Nolako bikiniak jantziko dira udan hondartzan eguzkia hartzeko, itsasoan igerian murgiltzeko edo igerilekura joateko?

Kolore beltza eta urdina aunitz erabiliko dira, baita txuri eta beltz binomioa ere. Marra, lore eta kolore lisoen konbinazioa ere nonahi ikusiko dugu. Gehien gustatzen zaizun eta hobekien gelditzen zaizun modeloa aukeratzea duzu onena!



MAKILLAJEA eta ORRAZKERAK

Purpurinei eta distrei agur errateko tenorea ailegatu da eta makillaje biziak alde batera utzi, eta udaberri eta uda honetan kolore mateak ikusiko dira. Baseei dagokienean, laranja eta arrosaren arteko nahasketa ikusiko da, aurpegiaren azal koloreari naturaltasuna eman nahian.

Begietan kolore beltza nagusituko da eta begirada nabarmentzeko marra beltz finak erabiliko dira. Sasoi honetan begiak ez ditugu sobera margotuak ikusiko. Momentu berezietarako edo gaueko makillajerako, marra lodixegoak ikusiko dira begietan, itzal urdinekin konbinatuz. Errimelak ia ikusezina dirudien arren, nabarmenduko den elementuetako bat izanen da. Hala, betazal luze-luzeak ikusiko ditugu udaberri eta uda partean. Bekainak ere lodiak eta markatuak izanen dira, naturaltasuna eman nahian.

Ezpainei dagokienean, distira ezak bolumenta ttikitzen duela kontuan hartu behar da. Edonola ere, bi joera ikusiko dira udaberri eta udan. Alde batetik, azal eta laranja koloreak ikusiko ditugu, eta bertetik, gorria eta purpura koloreak. Bi estiloak desberdinak dira baina biek ere arrakasta dutenak, eta hemendik aitzinera ere, arrakasta edukiko dutenak.

MOTOTSAK FURI-FURIAN

Ilea txukuna eta ongi zaindua bada, itxura ederra ematen du edozein gisara jarrita ere. Baina hortik aparte, sasoiari sasoiko modara egon daiteke ala ez. Udaberri-uda honetan, erraterako, mototsak ikusiko ditugu, alde batera begira egonen direnak.

Bolumena izanen da nabarmenduko den berritze ezaugarria. Desordenatutako orrazkera bilduak ikusiko dira, bolumen haundikoak, eta ile-motots solte eta kizkurrekin. Laburbilduz, desegituratutako orrazkera izanen da udaberri eta uda honetako joera, ukitu errebelde horrekin.

Flekiloa, orain arte bezala, maiz ikusiko dugu baina aurten, are luzeagoa izanen da, aurpegiaren erditsua estaltzeraino.

Ile bustiak ematen duen efektua ere berragertuko da. Ilea osoan edo zati batean gomina duten orrazkerak ikusiko dira, bai ilea solte dagoenean eta bai bildua dagoenean ere. Ilea bustiaren efektua duten orrazkera bilduak atzera orraztuak egonen dira, erdiko marra ongi markatua dutela. Erdiko marra hori ongi nabarmendua ikusiko da, aurpegiaren simetria markatuz. Ilea luze eta solteen kasuan, itxura berezia emanez, diademak ikusiko dira.



Kris
ileapaindegia

Giltzardí, 14
ELIZONDO
948 580 025



Eider
ileapaindegia

Orduetako: 9:00/13:00 - 15:00 / 19:30
Larunbatetik: 8:00/14:00
TIVOLIEN 948 45 13 38



ESTIBALIZ
ESTETIKA ZENTRUA

DIODO LIGHT SHEER
LASER BIDEZKO DEPLAZIOA

PROFESIONAL SANITARIOEK
EGINDAKO TRATAMENDUAK

%100ERKO EFIKAZIA
SAJO GUTTITAN

XALADOR, 14 • ELIZONDO • TEL: 948 511 360



NURIA
estetika zeharizimil

Depilazio naharria eta suzbitakia, aurpegiari loturazko garbitzea eta tratamendua.

Zazpigarutze 1-2C DONEZTEBE • 667 041 741

Azken-muga



skunkfunk
www.skunkfunk.com



Dezigual.

Jaimi Urzula kalea 38
31700 Elizondo (Baztan)

Tel/Faxa: 948 581 934
baztan@azkenmuga.net

Asteleuetik 10:30etik 14:00etara
Larunbatara 17:00etatik 20:00etara

KOSMA

GAZTEEN
MODA
PREZIO
GHEBI



Nagusia, 7 DONEZTEBE
626332322



GIZONEZKOEN MODA

JOERA BERRITZAILEAK IKUSIKO DITU GU UDA HONETAN



Udaberri-udako modan bermudak leggings-en gainera, leotardoak, mallak... ikusiko dira, baita ator zabalak eta faldoiak ere. Bermudak eta short-ak beti amerikarrek lagunduak datoz. Joera arras berritzailea da eta ez gaude sobera ohituak horretara.

Udako trajeak negu denboraldikoak baino informalagoak izanen dira. Galtzak hantara itsatsiak joanen dira, pitilloak izatera iritsi gabe. Trajeak galtza motzekin ere ikusiko dira. Aire libre eta informala duten trajeak izanen dira. Kolore argiak izanen dira ikusienak, txuriak, horixkak eta beigeak.



KOLOREAK:
2008KO DENBORALDITIK EZ DIRA SOBERA ALDATU. BELTZA, TXURIA, BERDE MILITARRA ETA URDINA IZANEN DIRA IKUSIENAK, EGUNEZ NAHIZ GAUEZ. KAMISETEK ETA POLOEK BAKARRIK IZANEN DIRA UDABERRI HONETAN KOLORE UKITUA EMANEN DUTEN JANTZIAK. DEGRADATURIK EZ DA IZANEN, GEHIAGO IKUSIKO DIRA KOLORE BAKARREKO TRAJEAK.

OSAGARRIAK: OSAGARRIEN ERABILERA GERO ETA OHIKOAGOA DA GIZONEZKOEN ARTEAN. AURTEN GERRIKOAK, TXAPELAK ETA ZAPATAK IZANEN DIRA ERABILIENAK ETA ASKOZ SOFISTIKATUAGOAK AGERTUKO DIRA. DENA DEN, HAUEK GUZTIEN ARTEAN, GERRIKOA IZANEN DA GEHIEN ERABILIKO DENA: GERRIKO ASKI HANDIAK, BAINA GIZONEZKOEN JANTZIEKIN ONGI EMATEN DUTENAK. ZABALAK IZANEN DIRA, HEBILLA EDO BELARRI HANDIKOAK ETA KOLORE GUZIETAKOAK.

QIHALAK:
KOTOI GARBIAK,
LYCRA BASATIAK,
BAITA
PLASTIKOA ERE



Eibarren, 67 bidea
948 510 197
LEITZA

AINART
SARAPANONIA

CAPELETTI
HOMME

Mendibil Merkatal Zentroa - 20302 IRUN • T: 943 624 672

MERCHE
MODA HOMBRE

Tempea Modulo, 11 - 20302 IRUN - Tel. 943 472 428



VENTA

PEIO

®

Ibardin
31780 BERA
Tel 948 630 719

Luzaide
31660 LUZAIDE
Tel 948 796 014

Bera (Administrazioa)
31780 BERA
Tel 948 625 130

Dantzarinea
31712 URDAX
Tel 948 599 389

EMAKUMEAK



HURRAK



MUTILAK

OINETAKOAK



ORCHESTRA

OXBOW

Reebok

Levi's

DOCKERS

NIKE

LACOSTE

RIP CURL

adidas



OINETAKOAK

KOLOREZ BETEAK DATOZ OINETAKOAK



Udaberri-udarako modako joe-
rak indartsu oinkatzen du eta
ez dio atsedetik ematen za-
pata baxuei. Hurrengo denbo-
raldirako ikusgarriena emaku-
meendako takoidun zapatetan
topatuko duzu. Diseinatzaileak
dagoeneko aurkeztuak dituz-
te moda-pasareletan; plata-
formak, bertigoa ematen du-
ten takoiak, kuinadun zapatak,
zurmiora lotutako oinetakoak
eta udarako zure oinetan ko-
lore aunitz.



**80. HAMARKADAN INDIRREAN
EGON ZIREN KIROL-
OINETAKOAK IZANEN DIRA 2009KO UDAKO
MODAREN OINARRIZKO ELEMENTU.**

**CONVERS, VICTORIA ETA J'HAYBER ZAPATILETAZ
ARI GARA HEMEN. CONVERSAK URTE BATZUK
DARAMAZKITE TENDENTZIA IZATEN, VICTORIA ETA J'HAYBER
ESTILOKO OINETAKOAK ALDIZ, 2009KO BERRIKUNTZEN
ARTEAN AURKITUKO DIUGU.**



CALZADOS OINETAKOAK

VIRGILIO

Larunbat
arratsaldetan
IREKIA

948 580 209
ELIZONDO

CASA OSTIZ

ZAPATADENDA • TABAKODENDA
LIBURUNDENDA • PAPERTEGIA

Parrokia 17
DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
costiz@telefonica.net

KOLEKZIO

BERRIA



Quiksilver U ROKY
Lois PUMA BOSS HUGO BOSS Levi's REPLAY GUESS DE MARRIAGE TOMMY HILFINGER
FREEMAN PORTER

LAPITXURI
Dantxarinea
948 599 311

BIOK
Ibardin
948 630 558

XABI
Arnegi
948 790 076

Irekoa egunero 8:15 - 19:15 Asteburuetan 9:00 - 20:00

BERTSOLARITZA

Nafarroako txapela seigarren aldiz jantzi du Xabier Silveira lesakarrak

Alde ttikia atera zion Julio Soto gorritiarrari

ttipi-ttapa

Nafarroako Bertsolari Txapelketan historia egin, eta bere seigarren txapela jantzi du Xabier Silveira lesakarrak. Desenpateak erabaki zuen martxoaren 21ean Elizondoko Lur dantzalekuan jokaturako finala, Xabier Silveira eta Julio Sotoren arteko desenpateak, hain zuzen. Beharbada, gorritiarrak seiko ttikian egin zuen poto batek jarri zuen txapela Lesakarako bidean. Silveirarentzat seigarrena. 617 puntu eskuratu zituen guztira eta Sotok 606,5.

Hirugarren postua finaleko neska bakarrantzat izan zen, Erika Lagoma lesakarrarentzat (430 puntu) eta laugarren postua ere bertze lesakar batek eskuratu zuen, Iñigo Olaetxea, 423,5 punturekin.

Puntu erdi batengatik txapelketa horretatik kanpo gelditu da Jon Barberena elizondarra, bosgarren 423 punturekin. Kartzelako gaien bikain ibili zen, Mikel Laboaren *Izarren hautsa* doinua erabiliz eta hiru bertso sentikor kantatuz, baina aitzinetik ez zuen bere mailara iris-



ARGAZKIA: I. UGALDE

Silveira eta Sotoren arteko buruz burukoak giro ederra sortu zuen.

tea lortu. Seigarren postuan iazko txapelduna, Julen Zelaieta beratarra sailkatu zen 420 punturekin; zazpigarren Xabier Legarreta aranoarra izan zen 417,5 punturekin eta zortzigarren, lehen aldiz finalean aritu zen Ander Fuentes *Iturri* zubietarra.

Euskal Herriko txapelketarako txartelak jokoan zeudela eta finalerako pronostikoa nahiko irekia zegoela kontuan hartuz, tentsio handia somatu zen oholtza gainean. Zortziko ttikian, Olaetxea eta Silveira ongi moldatu ziren. Sei puntuko motzean Zelaieta eta Sotok ale po-

litak utzi zituzten. Kartzeleko gaien, *Hurbileko norbait joan zaizu, zenbat maite zenuen erran gabe* gaiari kantatu behar izan zioten eta gehienek hildako senideei kantatu zieten. Silveirak antidisturbioengandik ihesi eza gututako neska bat hartu zuen gogoan eta Barberenak ere maitasun kontuak kantatu zituen.

SILVEIRA ETA SOTO AURREZ AURRE

Denentzako lana bukatutakoan epaia: bortz puntu baino guttiagoko alde Silveira eta Sotoren artean eta biek lanari ekin behar berriz ere.

Seiko motzean aritu ziren lehenik, bizkor eta txukun, baina *erritmoa* errima bat bertzearen segidan atera zen Gorritikoaren ahotik. Bigarren kartzeleko gaien, *Aspaldiko partez bertze bat eskatu dizute* gaiari erantzun zioten. Silveirak finaleko azken txanpari heldu eta entzulegoak bertze txapela bat eskatu bazion ere, «Julio Soto bezain ona ez zela» kantatu zuen. Sotok, berriz, hala bukatu zuen lehen bertsoa: «bigarren egin nun eta; nitaz denak ahaztu ziren». Ez da horrela izan, txapelketa handia egin du eta etorkizuna

eta Silveirak emandako bisera bereak dira.

GIRO BEROA

Giro biziko finala izan da 38. hau eta jendearen erantzuna ere halakoa. Ia mila ikusle inguru eta kanpoan gelditu ziren hainbat eta hainbat. Saioa hasi baino ordubete lehenago sarrera guztiak salduta zeuden eta, zoritxarrez, jende aunitz gelditu zen kanpoan. Oholtza gainean gauzak primeran joan baziren, oholtza azpian egon zen giroa zoragarria izan zen.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETARAKO TXARTELA

Nafarroako Bertsolari Txapelketan lehen lau sailkatuak izan direnak aurten jokaturako den Euskal Herriko Txapelketa nagusian izanen dira: Silveira, Soto, Lagoma eta Olaetxea.

SAILKAPENA	
Xabier SILVEIRA	617 puntu
Julio SOTO	606,5 puntu
Erika LAGOMA	430 puntu
Iñigo OLAETXEA	423,5 puntu
Jon BARBERENA	423 puntu
Julen ZELAIETA	420 puntu
Xabier LEGARRETA	417,5 puntu
Ander FUENTES	394 puntu

igogailuen instalazioa
 Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
 Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
 suteia@suteia.com

Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardur hartuz, zure igogailu instalatzen ditugu

ARESO

Korrikaren aldeko kilometroa erosi dute eskolak, Udalak eta gurasoek

Larunbatean, Basakabitik Goizueta aldera korrika ibili ziren

Juana Mari SAIZAR

Korrikaren edizio honetan, eskolak, Udalak eta Guraso Elkarteak kilometro bat erosi dute. Hala, lekukoa hartu eta martxoaren 28ko arratsaldean, Basakabitik Goizueta aldera korrika egin zuten. Halere, aurretik bi egun lehenago ekitaldi batzuk egin ziren. Ostegunean, bideo emanaldi bat eskaini zen eta ostiralean, Korrika Txikia herrian ibili zen. Ondotik, merezitako merienda egin zen Pake Toki elkartearen.

Egur loteak

Egur loteei buruzko bandoa atera du Udalak. Urteko loteaz gain, norbaitek egur gehiago behar badu, eskatu eta ordaindu egin beharko du.

Bide ondoko egurra tonako 18 euro kobratuko da; bidetik urruti dagoe-na 6 euro eta erdi parekoak 6 eta 18 bitartean tona bakoitzeko.

Emakumeen irteera

Emakumearen Egunna, martxoaren 8a, aspalditxo pasa zen, baina aipatu gabe gelditu zen

emakumeen asanbladak kontzentrazio txiki bat egin zuela. Horrez gain, irteera bat antolatu zuten martxoaren 28rako. Bizkaia aldera joan ziren.



ARGAZKIAK: IRANTZU ALUSTIZA

Helduen ikastaroa abian

Iragarri bezala, hasi dira helduentzako ikastaroak. Asteazkenean elkar-tu eta ariketak egiten aritzen dira. Aipatu digutenez, gustora dabilta.

POLITIKA

Aberri Egunean parte hartzeko deia

ttipi-ttapa

Apirilaren 12an egingen den Aberri Egunean parte hartzeko deia egin du Bai Euskal Herriari herri ekimenak, eta horrela, etxeetako balkoi, leiho, txoko eta mendi kasko guztietan ikurriñak paratzeko eskatu du. Egun horretan Irun eta Hendaia lotuko dituen martxa egingen da, eta «*olatu erraldoiarekin*» parte hartzeko deia ere egin dute antolatzaileek: «*Euskal Herriari al-daketa politikoa burujabetzarantza eramateko prest diren indar guztiak batu eta aurrera egiteko unea dela uste dugu*».

GIZARTEA

168.000 euroko dirulaguntza eman du Gobernuak suhiltzaile boluntarioen parkeetarako

Bera, Lesaka, Goizueta eta Leitzak jasoko dute laguntza

ttipi-ttapa

Eskualdeko suhiltzaile boluntarioen lau parkek 167.952,44 euroko dirulaguntza jasoko dute. Nafarroako Gobernuaren laguntza hartuko

du tenak Bera, Goizueta, Leizta eta Lesakako parkeak izanen dira. Nafarroan guztira 270.000 euro banatuko ditu.

Berako parkean 30.997,95 euro hartuko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Goizuetako suhiltzaileen parkea, joan den urtean inauguratu zutenean.

dituzte; Goizuetakoan 35.031,44 euro; Leitzakoan 67.990,47 euro. Horietatik 40.000 euro kamioiaren txasisa alda-

tzeko izanen dira. Lesakako suhiltzaileek, azkenik, 33.932,58 euro hartuko dituzte. Bertzelako subentzioak

ere iragarri ditu Gobernuak: Berako parkean ate metaliko bat paratzeko eta Lesakan ibilgailu berri bat erosteko.

LEITZA

XXXI. Herri Krosa jokatu da larunbatean

Izena emateko egunean bertan edo www.herrikrossa.comen

Asier IMAZ

Aurrera Kirol Elkarteak XXXI. aldiz antolatu duen Herri Krosa larunbat honetan, apirilaren 4an egingen da. Izena emateko bi aukera dituzte parte-hartzaileek. Alde batetik, larunbatean bertan egiten ahal da, Aurrera elkartearen, eta bestela, Internet bidez egin daiteke, www.herrikrossa.comatarian. Helduek sei euro ordaindu beharko dituzte.

Benjamin mailako korrikalariak 16:15ean abiatuko dira; alebinak eta infantilak 16:30ean; kade te eta juniorrak 17:00etan eta seniorrak eta beterranoak 17:30ean.

Sarier dagokienez, gizonen senior kategorian 200 euro eskuratuko ditu irabazleak, 140 euro bigarrenak, 80 euro hirugarrenak eta 50 euro laugarrenak. Emakumezkoetan, berriz, 100 euro irabazleak, 70 euro bigarrenak, 40 euro hirugarrenak eta 25 euro laugarrenak.

Euskarazko telebista ikusten jarraitzeko

Leitzako Udalak, Nafarroako beste hainbat

Udalek bezala, euskara ardatz duen LTD edo Lurreko Telebista Digitalaren inguruko mozioa edo adierazpena onartu zuen otsail amaierako bilkuran. Modu honetan, Nafarroako Gobernuari bi eskaera egin zizkion.

Lehena: «*Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren hitzarmenak sinatu ditzala LTDren bidez, Nafarroan Euskal Autonomia Erkidegoko ETB1 eta ETB3 kateak ikusi ahal izateko*». Eta bigarrena: «*Nafarroan tokian tokiko euskarazko telebistak ikusteko aukera eskaintzea, eta horretarako, Nafarroako Gobernuak telebista kate horiei beharrezkoak diren lizentzia digitalak ematea*».

EUSKARAZKO TELEBISTARIK GABE

Udalean onartutako mozioen arabera, «*LTDk ez du aukerarik ematen euskaraz emititzen duten kate bakarrak Nafarroan ikusteko*». Hau da, ETB1 eta ETB3 ezingo liriteke Nafarroan ikusi. Bestalde, tokian tokiko telebista kateak ere, Xaloren kasu, lizentziarik gabe emititu ezinik gel-



UTZITAKO ARGAZKIA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak salgai Maimur eta Astiz liburu-dendetan

Ikuskizuna Leitzara ekartzeko lanetan Denok Bat Guraso Elkarte eta Aurrera Kirol Elkarte aritu dira, Udalaren laguntzarekin. Honen ondorioa zera da: Pirritx, Porrotx eta Marimotots kiroldegian egongo direla maiatzaren 13an, asteazkenarekin. Euren azken ikuskizuna eskainiko dute: *Piratak*. Euskal Herriko pailazo ospetsuenak ikusi nahi dituenak sarrerak lehen bailehen erosi beharko ditu Maimur eta Astiz liburu-dendetan. Txartelak 6 eurotan daude salgai. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 2007, 2008 eta 2009an jaiotako haurrek ikuskizuna doan ikusteko aukera edukiko dute.

dituko liriteke. Hau gerta ez dadin, Udalak Europako Kontseiluak 1992an onartutako Gutxiengo Hizkuntzei Buruzko Eurokartan jartzen duen pasarte bat azpimarratu du: «*erregio edo gutxiengo hizkuntzan nahiz hauen antzekoren batean sortutako idatzizko informazioa delata, adierazpen askatasunari edo informazioa askatasunez hedatzeaz buruzko mugarkezarrezko konpromisoa*».

Jaunarena eta Zabaleta txapelkun Lezaman

Aurrerako pilotariak asteburu bizia izan zuten martxoaren 21 eta

22an. Ohiko Nafarroako Jokoetako partidez gain, Jaunarenak eta Zabaletak lortutakoa azpimarratu behar da, baita Agirre eta Aristorenaren laugarren postua ere.

Lezamako Txapelketako finalean, jubeniletan, Jaunarenak eta Zabaletak 22-14 irabazi zuten, Leitzara txapel berri bana ekarritz.

Emakumea Pilotari Txapelketan, lera Agirrek eta Saioa Aristorenak 3. eta 4. postua erabakitzekeo partida jokatu zuten. Kasu honetan, 18-30 galdu zuen bikote leitzarrak.

Saharar herriari elkartasuna

Leitzako Saharar He-

riarekin Elkartasun Taldeak hainbat ekitaldi antolatu zituen martxoaren 27an Aurrera Kirol Elkartearen. Jardu-naldia *Sahara no se vendet* dokumentala ikusiz hasi zuten Aurreran bildu zirenek. Honen harira, saharar herriaren ordezkari batek hitzaldia eskaini zuen ikus entzunezko amaiztean.

Diploma banaketek ere bere tarte izan zuten elkartasun egunean. Saharar haurrek udan etxean eduki zituzten familiei esker moduan diploma bana eman zitzaizkien.

Azkenik, denen artean afari-merienda egin zuten.

BEINTZAKO OSTATUA
 948 45 00 14
 www.alfarroz.com
 www.alfarroz.com
 www.alfarroz.com
 www.alfarroz.com
 www.alfarroz.com
ORBELÁ

ZUBIONDO
 Jatetxea
 sagardotegia jatetxea
 Alasta karrika
 BERA NAFARROA

Gure Haragia
Nuestra Carne

ARANO

Bigarren eskuko gauzen azoka arrakastatsua izan da

Bildutako diruarekin Korrikako bi kilometro erosi dira

Ainhoa ANSA

Martxoaren 14an, arratsaldeko 4etarako trasteak Kontzeju aurrera ekartzeko deia egina zegoen eta, aurrenekoak lotsati xamar azaldu baziren ere, 5etarako azoka traste ugariz beteta egon zen jendearen harridura eta kuriositatea noiz asetzen hasiko zen zain.

Denetarik eraman zuen jendeak: arropak, zapatak, boltsak, koadroak, liburuak, bideoak, plater, katilu eta edalontziak, bitxiak, panpinak, puzzle eta bestelako jostailuak, lanparak, parrilla, eskiak, paretako erloju zaharrak, argizaiolak, labe elektrikoa... Etxean zen edozerk balio zuen eta zer saldua izan zela errez esan badaiteke, nork erosia ere izan zela ezingo dugu ukatu!

Azokaren ondotik, Kontzejun herri afaria prestatu zuten Imanole eta Ainhoa. Bertan



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

Era guztietako tresnak ikusi ahal izan ziren bigarren eskuko azokan.

30 lagun inguru elkar-tu ziren giro ederrean.

KORRIKAKO BI KILOMETRO

Azokan atera zen diruarekin, ondotik egin zen afarian atera zenarekin eta Udalak eman zuenarekin, Korrikako bi kilometro

erosteko adina lortu da. Hala ere, aranoarrek, Kaxetatik Benta Berri arteko bidea korritu behar izan zuten martxoaren 28ko iluntzean. Egunean bertan, berriz, Kaxetara elkarrekin jaisteko, arratsaldetik herriko tabernarien laguntzarekin prestatu-

tako pintxo-poteoan elkartu ziren herrikoak, Korrikari behar bezalako umorearekin eutsiz.

Korrikaren alde prestatutako ekintzetan, herriaren inplikazioarekin pozik gelditu dira antolatzaileak beste behin ere. Eskerrik asko Arano!

ARKUPEAK

Lourdesera ateraldia maiatzaren 1ean

ttipi-ttapa

Langileen Egunean, maiatzaren 1ean, Lourdesera joateko autobusa antolatu du Arkupeak Jubilatu eta Erretiratuen Elkarteak. Horretarako aitzinetik eman beharko da izena, apirilaren 7tik 15era bitartean. Autobusen orduak izena emandakoan jakinaraziko dira. Behin Lourdesera ailegata, 11:30ean Arkupeak-eko bazki-deentzat meza izanen da Saint Joseph Kaperan. 13:15ean bazkaria egingen dute Acadia eta Florida hoteletan. 15:30ean arrosarioa errezatuko dute, eta 16:30ean gaixoen prozesioa egingen da. Aipatu, *Arkupeak* paratzen duen kartela eramanez dutela prozesioan. 18:20an itzulerako autobusa hartuko dute.

Arkupeak elkartearen helburua bidaia honetara gaixoak eramatea da, eta Elkarteak bere gain hartuko du gastua. Hala ere, gaixoaz arduratuko den senideren batek nahita nahiez joan beharko du, eta honek ordaindu egin beharko du. Egun osoko prezioa 30 eurokoa izanen da.

Eskailerak igotzea... ez da oztupo!

Behetik

Añorga-Ixiki, 14
T. 943 363 791
671 073 888
www.behelik.com

plataformak • igogailu bereziak • ahulki bereziak...

GOIZUETA

Joarbe enpresari adjudikatu dio Udalak bide gorriaren obra

144.245 euroko aurrekontua du eta udan egingen da

Esteban AROTZENA

Langabeziari aurre egin asmoz, Zapateroren Gobernuak gure herriri emandako 144.245 euroak Olaberriatik Maleneko Zubia bitarteko bidegorria zolaberritze-ko eta argiztatzeko erabiliko direla aipatu genuen lehen **Ttipi-Ttapan**.

Orain badakigu obra zeinek egingen duen ere. Martxoaren 18an egin zuten horretarako pleinoa Herriko Etxean, eta mahai gaineko eskaintza bakarra Joarbe Eskabazioak enpresarena zenez, Leitzako enpresaren gain joanen da lanaren ardura. Obra hiru hilabetetan egiteko konpromisoa hartu du Joarbek eta hiru langaberentzat enplegu berria sortuko du.

Umore Onaren ohiko asanblada

Urteko batzarra egin zuen Umore Ona elkarteak martxoaren 21ean. Bi ordu eta erdiko bilkurak askorako eman

zuen, hainbat gaitan erabaki zehatzik hartu ez bazen ere. Beste batzuetan, berriz, bai. Urteko kuota 75 eurotara igotzerakoan, esate baterako. Bost komisiokide berri ere hautatu ziren, Daniel Narbarthe, Raket Yarza, Juan

Baialtzinikin...

Basauntz Elkartea eta Udalaren artean indarrean dagoen konbenioa bukatzen denerako ehiztariak herrian enpadronatuak egotea bultzatuko lukeen arauren bat aztertzen ari direla Herriko Etxean?

Ignacio Apezetxea, Miguel Angel Salaberria eta Idoia Albistur, hain zuzen. 229 bazkideeta-

tik (231 larunbatz gerroztik) 30 inguru (eta komisia barne) azaldu ziren asanbladara.



UTZITAKO ARGAZKIA

Odol-emaileen bigarren hitzordua

Herriko odol-emaileek ez zuten hutsik egin martxoaren 26ko hitzordura. Propio horretarako prestatuako autobusak bigarren bidaia zuen Goizuetara. Kontuan hartu behar da, adin guztietako 60 odol-emaile direla herrian, orain dela hilabete batzuk luzatutako deialdiari emandako erantzun harrigarriaren ondoren.

LITERATURA

Azkue Sarietako bi Goizueta eta Iruritarra

ttipi-ttapa

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioak antolatzen duten R. M. Azkue Literatur Sariak arrastoa utzi du eskualdean. Idazle gazteak literatura mundura erakartzea da sariketa honen helburua, eta narrazioak eta olerkiak onartzen ditu, A mailan 11 eta 14 urtekoenak eta B mailan, 15 eta 18 urte bitartekoak. Lehiaketara aurkeztu diren 261 lanen artean, bi sari eskualdera etorri dira. Olerkien alorrean, A mailan, **Goizuetako** eskolako Oihane Zugarramurdik hirugarren saria jaso du, *Maitasuna beti ez da berdina* lanarekin. Narrazioetan, B mailan, Baztanera joan da hirugarren saria. Lekaroz-Elizondoko institutuko Aritz Urrutia **iruritarra** da saritua, *Guzizco Jaun noble* lanarekin.

www.ttipi.net

ola SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Kimenizakua
- Sagardotegiko menua

102 Meakal auzoa
20304 IRUN
Tfona 943 623 130

BAZTAN

FLASH

Ornozko larriladietarako zentroa berriz irekiko dela dio Osasunbideak

Udal ordezkariekin eta herrietako alkateekin bildu zen Kutz kontseilaria

ttipi-ttapa

Kenduko zutela iragarri eta kendu, baina erabakia gibelera bota eta berriz zabaldu. Horixe bera egin du Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak Oronoz-Mugairiko larriladietarako zerbitzuekin.

Osasunbidearen erabakiz, martxoaren 1ean Baztanen ordura arte zeuden larriladietarako bi puntuetatik bat desagertu egin zen, Oronoz-Mugairikoa, hain zuzen. Hala, Elizondoko gaueko zerbitzua baino ez zen gelditu Baztan guzirikoa. Martxoaren 17an, ordea, Maria Kutz Osasun kontseilariak Baztanera egindako bisitan, Oronoz-Mugairiko larriladietarako kontsultategia berriz zabalduko zutela agindu zuen, Baztandik egindako eskaria aintzat hartuz. Eguneko 24 ordutan mediku eta erizain bat egonen dela ziurtatu



ARGAZKIA: ONDIKOL

Udaleko ordezkariak eta Batzar Nagusietako kideak Maria Kutz Osasun kontseilariarekin, martxoaren 17an egindako bisitan.

zuen. Horrez gain, Oronoz-Mugairiko kontsultategia haunditu eta egokituko zutela iragarri zuen.

Elizondoko zentrotik zenbait aparatu kendu dira, hala nola, Xizpiak. Horren harira, etorkizunean Doneztebeko Osasun Zentroa haunditzen denean hutsunehori konponduko dela aipatu zuen Kutzek, Doneztebeko eskualde osorako izanen delako.

Virginia Aleman alkateaz gain, NaBaiko Martin Garde eta UPNko Jose Mari Garmendia zinegotziak, eta herrietako alkateak bildu ziren Osasun kontseilariarekin: Xabi Torres Elizondoko alkatea, Asier Maritoren Anizko alkatea, Juanjo Bidart Erratzuko, Arantxa Zelaia Berroetakoa, Bittor Elizagoien Oronoz-Mugairikoa, Pello Obregozo Iruetakoa, Jon Alkasena

Azpiiketako eta Pablo Zenoz Zigakoa.

Denak pozik agertu ziren Oronoz-Mugairiko larriladietarako zentroa berriz zabaldu delako. Dena den, pediatriaren postua betetzeko eskatu zuten, eta langilegoan dauden gainerako gabeziak betetzeko.

Baztanera egindako bisitan, Osasun kontseilaria Benito Menni zentro pribatutik errepasatu zen.

Gazte Martxa Amaiurtik abiatuko da

Lotu independentziara! lelopean eginen dute gazte independentistek Aste Santuan urtero antolatu ohi den ekimena. Apirilaren 10ean, ortzegunarekin, Amaiurtik abiatuko da eta hilaren 12an Donibane Garazin amaituko da. Martxako azken egunean jaialdi berezia izanen da Donibane Garazin, hiru gunetan banatuta. Kontzertuei dagokienez, Kasu, MAK, Def Con Dos, Su Ta Gar, Delorean eta Mouss & Hakim taldeak ariko dira.

Kirol taldeak babesteagatik aipamena

Kirol taldeak babesteagatik Nafarroako Gobernuak eman dituen sarien artean, horietako bat Marmoles Baztan enpresak jaso du. Brontzezko aipamena izan da beretzat, 40 urtetan babesle lana egin duelako, eta zenbaitean, Baztan Kirol Taldeari abala eman diolako. Sariketa honetan Nafarroako 79 parte-hartzaile izan dira, aitzineko urtean baino gehiago, orduan 46 izan baitziren.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua

Telefonoa: 948 581 488
Mug.: 630 354 816

Santiago, 58 2C
ELIZONDO

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

ZAGVA

EHIZA ETA ARRANTZA

Irabizirik gabeko jaiak eta elizondo
948250371 iruñea

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Abastos Plaza, Baztan Frontoia eta Jaime Urrutiako lanak laster hasiko direla iragarri du Udalak

Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin egingen dira

ttipi-ttapa

Espainiako Gobernuak emanen duen dirulaguntzarekin, Baztanen egingen diren lanak lehiaketara atera ondotik, obrak laster hasiko direla iragarri du Udalak. 1.388.827 euroko aurrekontuarekin Baztan frontoiaren teilatua eta fatxada konpondu, Elizondoko Abastos plazako lanak eta Jaime Urrutia karrikaren zolaberritze lanen bigarren fasea egingen dira.

ABASTOS PLAZA

Abastos plazako lanak Silvia Barbarin udal arkitektoak egindako memorian oinarrituz egingen dira, 398.055,39 euroko aurrekontuarekin. Zazpi hilabete izanen ditu enpresa arduradunak obrak egiteko eta gehenez ere, abenduaren 1erako eginak egon beharko dute.

BAZTAN FRONTOIA

Baztan frontoiko lanak 795.444,89 euro kostako dira, eta Erratzuko Etxelebert eta Almandozko Ederrena pi-

lotalekuetako lanak egin dituzten Danborena Olaetxea arkitektoek egindakoa da proiektua. Lanak egiteko zortzi hilabeteko epea izanen du enpresa aukeratuak.

JAIME URRUTIA

Jaime Urrutia karrikaren bigarren zatia zolaberritzeko, berriz, 231.326,72 euro erabiliko dira. Arizkunenea Kultur Etxetik Osasun Zentrora bitarteko tarte sartzan da proiektu honetan eta bidea espaloien altuerara altxatu eta oztopo arkitektonikoak kenduko dira. Udal arkitektoaren memorian oinarrituz, obrak hauek egiteko epea bortz hilabetekoa izanen da.

Ibilgailuen Azterketa Teknikoak Oronoz-Mugairin

IAT edo Ibilgailuen Azterketa Teknikoak egiteko instalazioak eraikiko dira aurtan Oronoz-Mugairin. Hala iragarri du Nafarroako Gobernuak.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Kunsthalek Baztanerako dituen proposamenen erakusketa maiatzera arte zabalik

Kunsthale proposamenak Baztango Ballararentzako izenburua duen erakusketa zabalik dago. Joan den urteko otsailetik ekainera, Irungo Kunsthal-Irun Arte Plastikoetako eta diseinuko zentruko ikasleak Baztanen lanean aritu ziren. Batetik, zabor edukiontzien inguruan hausnartu zuten —kamuflajea, balioaniztasuna eta grafismo aplikatua oinarrituz—. Bertetik, berriz, Baztanberri plazaren itxura hobetzeko ideiak proposatu zituzten. Egindako lanak erakusgai paratu dituzte orain, herritarrek ikus ditzaten. Martxoaren 13an, egin zuten inaugurazio ekitaldia Udaletxeko Garbaran eta maiatzaren hasiera bitarte han egonen dira. Horrez gain, egun berean, Udala eta zentroaren artean elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten. Ikasleek aurtan bi eremutan egin beharko dute lan: Baztango ikastetxeen kanpoko patioen itxuraren inguruan, eta Elizondoko ikastetxeetara joateko dauden bideen seinalizazio eta garapenari buruz. Baztango Udalaren izenean Virginia Aleman alkateak sinatu zuen hitzarmena eta Kunsthal zentroaren izenean M^a Angeles Rubio zuzendariak —argazkian—.



ARGAZKIA: M^a JOSEFA BEGORRE

Renoko mus txapelketan Bikondoa iruritarra nagusi
Sorterritik urruti, baina baztandarrek muserako duten afizioari eusten diote. Martxoan Renoko Zazpiak Bat Klubean jokaturako txapelketan, garaipena baztandar batek eskuratu zuen: Francisco Bikondoa iruritarra.

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - beheak
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 963
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelehenean
Iarunbatara:
8:30 - 13:30
16:30 - 20:00

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
7943 453 060
N-123-B, 266 km
AMAIUR

ZUGARRAMURDI

Titiriteroen Topaketa apirilaren 18 eta 19an egingen da

Gastuei aitzin egiteko atorrak
salgai daude Marixan ostatuan

Margari eta Koro

Bi urtetik behin antolatzen den Titiriteroen Topaketa ospatuko da hilabete honetan Zugarramurdin. Momentuan dakiguna da apirilaren 18-19ko aste honddarrean egingen dela, eta 11 taldek parte hartuko dutela, goiz eta arratsaldez herriko hainbat toki diferentetan. Programa hurrengo **Ttipi-Ttapa**ren alean emanen dugu.

Topaketa honetarako oroimen gisa eta finantziazioa lortzeko, atorrak salgai jarri dira. Erosi nahi dituenak 10 eurotan Marixan ostatuan ditu.

Parlamentarien bisita

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak Sorginen Museoa bisitatu zuen martxoaren 18an. UPNko Reyes Carmona, Carmen Gonzalez eta Sergio Sayas, Na-Baiko Paula Kasares eta Patxi Telletxea eta PSNko Roman Felones eta Maria Victoria Arraiza etorri ziren eta Jesus Agerre alkatearekin,

Ainhoa Agirre Zugarramurdiko Garapena elkarteko kudeatzailearekin eta Izaskun Abril Cederna-Garalur Elkarte-ko teknikariarekin egon ziren.

Parlamentarien asmoa, museoaren 2008ko datuak eta etorkizunera begira dituen helburu eta proiektuen berri lehen eskutik jasotzea zen.

Honela, Izaskun Abril eta Ainhoa Agirrek presatutako ikusentzune-koa ikusi zuten. Aipatu zuten, 2007ko uztailan ireki zenetik 2008ko urte akabaila bitarte, 28.677 bisitari jaso ditu Museoak. Museo honetan 1.800.000 euroko inbertsioa egin da eta horietatik 700.000 euro Udalak ordaindu ditu. Horregatik, etorkizunera begira lanean segitzeko asmoa azaldu dute, gero eta bisitari gehiago eta landa turismoak gero eta indar gehiago duela kontuan hartuz. Izaskun Abrilek aitzineratu zuenez, «80 lagunendako aterpe turistikoa irekiko da laister, ostalua eta jatetxeaz hornitua egonen de-



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Urdazubiko emakumeak sagarnotegian

Urdazubiko Ugarana Emakume Taldekoek, urtero bezala, sagarnotegira-ko itzulia egin dute. Aldi honetan 22 lagun bildu dira eta Petrategin egon dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Itziar Mikelperizenaren margo erakusketa Museoan

Itziar Mikelperizena margolari beratarrek erakusketa zabalduko du ortziral honetan, apirilak 3, Sorginen Museoan. Animaliak, paisaiak eta erretratuak paratuko ditu ikusgai eta apirilaren 19ra arte hantxe izanen dira. Goiz eta arratsaldez egonen da zabalik erakusketa, 11:00etatik 19:00etara. Inpresionismoaren eta errealismoaren tartean definitzen du Mikelperizenak bere margotzeko estiloa, eta paisaiak eta zaldiak pintatzea du batez ere gustuko. Erakusketaz erakusketa ibiltzen da beratarra eta hurrengo hitzordua Zugarramurdin egin du.

na eta horrek herriko eskaintza osatuko du».

Ainhoa Agirrek, berriaz, zera nabarmendu zuen: «arrakastaren gila-

tza, ondarea ongi gordetzea da, baita produktu iraunkorren sorkuntzan oinarritutako kudeaketa turistikoa ere».

Ikusentzune-koa azaldu ondotik, parlamentari-ek museo bisitatu zuten Idoia Sanz eta Aina- ra Abeteren laguntzaz.

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

ARMUA JATEA

T. 948 635 134
Zugarramurdi, 144
01042

Iñaki Alzueta margoak
Pintura de pinturas eta irudiak • Diburuak: irudiak, irudiak
Fotografia • Serigrafia
Lantegi eta berriztatze irudiak • Pintura
Hartu eta eguzki argazkietan irudiak da
Tel. 659 802 417 • Bar-tipi etxea - Lantegi Auzoa • 01711 URDAZUBI
gintura.alzueta@yahoo.es

HELENGO ETXENGO
EDENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542319
Muzen eta Yéromopel
SARA

SARA

Idazleen Biltzarrean 250 liburu berri baino gehiago aurkeztuko dituzte

Herria aldizkariak eskuratuko du Biltzarreko Saria 3.000 ale argitaratu dituelako jadanik

Xan HARRIAGUE

Azken hilabeetan argitaratu diren liburu anitz ikusten eta erosten ahalko dira Idazleen Biltzarrean, 250 baino gehiago. Baina klasi-koek eta azken urte-etakoe ere tarte zabala izanen dute. Gehienak frantsesez eta euskaraz dira, eta gutxi batzuk espainiolez, baina beti ere Euskal Herriari buruz, historiari buruzkoak, eleberriak eta ikerketa batzuen emaitzak, bertzeak bertze. Hauen aurkezteko eta egileekin solastu ahal izate-

ko, 118 autorek haien parte-hartzea konfirmatu dute. Tartean daukete, Apalategi aitase- meak, Xipri Arbelbide, Jean Louis Davant, Aurelia Arkotxa, Piarres Charriton, Janbattiit Dirassar, Mikel Duvert eta Angel Rekalde. Horretaz gain elkarte batzuk han izanen dira, 20 bat argitaletxerekin batera.

Usaian bezala, Bazko Astelehenean izanen da, apirilaren 13an, 10:00etatik aitzinera. Aurtengoa Biltzarreko Saria Herria astekariari emanen diote, 3.000. ale kaleratu baititu, eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

10:00etatik aitzinera emanen zaio hasiera Biltzarrari.

jadanik 65 urte dituelako. Usaiako Eusko Ikaskuntzaren bekak ere banatuko dituzte. Aurten 8 dira Eusko Ikaskuntzatik dirulaguntza izanen dutenak liburu bat idazteko eta argitaratzeko.

Aurkezpen berezietan, 11:45ean Euskaltzaindiako Jon Artzak hizkuntza gutxituen erakusketaren azalpena emanen du, eta 16:00etan Xabier Soubelet bere azken bi liburuei buruz solastatuko da.

Liburuaren azokarekin batera, eskulanean eta margoen erakusketa eskainiko da. 46 artistek parte hartuko dute.

Atxuri Urdin Huescan


Atxuri Urdin Real futbol taldeko jarraitzaileen lagunartea Huescara joanen da apirilaren azken asteburuan, 25 edo 26an, han ariko baita Donostiako taldea. Oraindik zehaztekoa da larunbatarekin edo igandearekin, baina par-

tidaren ikustera joateko interesatuak direnak izena ematen ahal dute eta informazio gehiago izan (0033) 610 75 21 71 telefonora deituz, edo mezu bat igorrituz helbide elektronikoko huntara: penaplata@euskalerrria.org. Autobusa goizean aterako da, eta arratsean itzuliko da.

Deialdia irekia da lagunarteko kideentzat, baina baita nahi duten guzientzat ere, herrikoak izan ala ez. Izenak lehenbailehen ematea eskertuko da.

Euskaltzaindia Sarako XXVI. Idazleen Biltzarrean
apirilaren 13an, astelehena

Erakusketa: Pirinioetako hizkuntzak



Argitalpen Berriak

Henri Duhau Aurelia Arkotxa Txomin Peillen Jean-Louis Davant

SENPERE

Iduzkipean eta ur benedikatu sorta batekin estrenatu dute Luberriako ur baradera

Luberriakoa Lapurdiko obrarik haundiena da gaurko egunean

Franck DOLOSOR

Ipar Euskal Herriko agintari gorenek Luberriako urtegia inauguratu zuten martxoaren 21ean. Senpeter gutik ezagutzen dute Cherchebuit auzoa baina inaugurazio egunean hautetsi eta kazetari ainitz elgatu zen Dantxarineako bidean den ur baradera berria ikusteko.

73 hektarako urtegia hutsa eta idorra da. Urdazuri ibaiak gainezka eginez duelarik ura atxikitzea izanen da bere lana. 1983an uholde ikusgarriak gertatu ziren Urdazuri ibarrean eta zazpi lagun ito ziren. Berehala, baradera bat altxatu behar zela Luberria aldean aipatu zuten orduko hautetsiek. Bidean neke frangori buru egin behar izan diote, alde batek, dirua biltzeko eta bertetik, ekologisten kexak kontuan hartzeko. Azken urteetan, Luberriako kamarloak Euskal Herriko mamu ospetsuenak bilakatu dira bizi ziren zuhaitzak tokiz aldatu behar izan baitira banaka banaka. Ustekabeko aldaira horrek urtegiaren eraikitze lanak gibelarazi ditu.

Gaurko egunean, Luberriakoa Lapurdin egin den obrarik haundiena da, orotarar, hamar miliun euro gusta baita. Aipagarria da Sarako herriak ere parte hartu due-

la finantzazioan, nahiz eta ez duen baraderaren abantailarik izanen. Bati Laborde eta Jean Aniotzbehere Sarako auzapezak eta auzapez ohiak parte hartu zuten ekitaldian. Senpereko auzapez ohiak ere, Germain Ezponda eta Pierre Iriogoyen, hurbildu ziren Luberriarar.

Bere aldetik, Michèle Alliot Marie barne ministroak goraiatu zuen Michel Barnier gaur egungo laborantza ministroak eta europar komisario ohiak Bruselatik eman zuen laguntza proiektu egia bilaka dadin.

EZTABAIDA BIZI-BIZIA

Baraderaren altxatzeak polemika sutsua piztu du Senpere aldean baina azken hilabetetako euriteek frogatu dute beharrezkoa dela kalteak murgatzeko. Udazkenean, lehen froga bat egin ondoren, urte hastapen huntan ur ainitz atxiki zuen berri ere: miliun bat eta berrehun mila metra kubiko ur. Adituek diote ur guzi hau bat batean isuri izan balitz hirurogoi zentimetrako uholdea gertatuko zela Senpereko karrika nagusian.

Dena den, inaugurazioan nehork ez du aipatu adituek hastapenetik diotena: Luberriakoa ez dela aski izanen mota guzietako uholdeak saihesteko. Proiektuaren has-



ARGAZKIA: F. DOLOSOR

Eskola elebidunen bestan

San Josep eskolako ikasle elebidunek Euskal Haziak elkartearen Haurren Bestan parte hartu zuten martxoaren 22an Kanbon. Euskal Haziak elkartearen eskola elebidun pribatuetako burasoak biltzen dira. Gaurko egunean, hiru eta hemezortzi urte arteko 2350 ikasle dabilta Ipar Euskal Herri osoan barrelatuak diren 40 eskolatan, hauen artean Senpereko San Josep eta Arretxea kolegioa.

tapenetik, adituek diote bertze baradera ttikiak egin behar direla Saran edo Amezpitu aldean. Hautetsiek diote Luberriako urtegia ongi integratua dela Nafarroa eta Lapurdi lotzen dituen Urdazuriko ibarrean, laborantzari hartu zaizkion eremuetan.

Luberriako baraderaren

estrenan, hautetsiek ez zuten hitz bat egin euskaraz. Jaunerretorak Gurre Aita euskaraz kantatu zuen eta urtegiaren ondoan dagoen harrian hautetsien izenak euskaraz ere agertzen dira.

Hatsaren Poesia Eguna

Hatsaren Poesia Eguna

eginen da igandean, apirilak 5, Larraldean. Eguerdian Euskal Herri osoko olerkari lanekin osatutako liburuaren aurkezpena eginen da. Aurtengoa 11. argitalpena da. Ondotik zikiro jatea eginen da eta arratsaldean, olerkiak irakurritakoan, sei bideoren proiektio poetikoa izanen da ikusgai.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

<p>Bera 948 63 74 04 SAN JOSE BEILATOKIA</p> <p>Doneztebe 948 63 74 04 SAN PEDRO BEILATOKIA</p>	<p>Elizondo 948 58 19 59 FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA</p> <p>Leitza 948 63 74 04 LEITZAKO BEILATOKIA</p> <p>Lesaka 948 63 74 04 LESAKAKO TANATORIOA</p>
---	--



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan



EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Oier Sanchez Elisalt, Lesakakoa, martxoaren 7an.
Egoi Bidart Zabaleta, Leitzakoa, martxoaren 16an.
Mirari Elorga Perurena, Urdazubikoa, martxoaren 24an.
Naia Lamothe, Sarakoa, martxoaren 11n.
Enaitz Bikondo Jaurena, Erratzukoa, martxoaren 18an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Pello Garmendia Tapia, Lesakakoa, martxoaren 13an, 32 urte.
Josefa Mindegia Telletxea, Aresokoa, martxoaren 13an, 91 urte.
M^a Concepcion Rodenas Arruti, Elizondokoa, martxoaren 14an, 93 urte.
Patxiku Etxeberria Arbea, Zugarramurdikoa, martxoaren 15ean, 61 urte.
Sofia Etxartea Korteia, Elizondokoa, martxoaren 16an, 86 urte.
Miguel Angel Goñi Barberena, Iturriegoa, martxoaren 16an, 64 urte.
Miguel Angel Martiarena Opoka, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 17an, 65 urte.
Jose Luis Arotzena Iribarren, Doneztebekoa, martxoaren 20an, 61 urte.
Jose Luis Azanza Elizalde, Arizkungoa, martxoaren 20an, 41 urte.
Jose M^a Zozaia Mutuberria, Leitzakoa, martxoaren 21ean, 75 urte.
Jose M^a Pagola Iratzoki, Berakoa, martxoaren 23an, 80 urte.
Paulina Sanchez Alonso, Beran, martxoaren 23an, 91 urte.
Juan Ramon Iriarte, Sarakoa, martxoaren 17an.



Joseba Andoni URDANITZ ETXEBERRIA

1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

VII. URTEURRENA

Udaberriak bizia ekarriz
 Zure askatasun modua gogoratzen du
 Zure ametsak buruan izanik
 Zure indarra guria egiten dugu.

GURASOAK ETA SENIDEAK



Pello GARMENDIA TAPIA

Lesakan, martxoaren 14an



Negu gogorra pasa eta gero
 udaberriko egun politena
 aukeratu duzu...
 Ez zaitugu ahaztuko

LESAKAKO LAGUNAK



Mikel MARTIARENA BENGOTXEA

Oiartzungoa, 2008ko otsailaren 19an

I. URTEURRENA



Beti irrifarrea zenuen lagunmin
 gauza denen gainetik aurrera ekin
 bizitzari helduaz gogo guzietan
 indar hau utzi duzu betiko gurekin

GOLDEA



Unai APEZTEGIA *Aurtizko pilotari ohia*

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

«Hamahiru urte pasatu ditut pilotan eta orain bertze etapa bat hasi dut»

ttipi-ttapa

Hamahiru urte zuriz jauntzita pasatzeak aunitzerako eman dio Unai Apeztegia Aurtizko pilotariari: mila partidatik goiti, momentu onak eta txarrak, lesioak... Baina guztiaren gainetik, balantzea «positiboa» izan dela dio. Ttikia zela eman zituen bere lehen pilotakadak Apeztegiak, eta artean gaztea zela bete zuen pilotari guzien ametsa: profesionaletara salto egitea, 21 urterekin. 1996ko apirilean izan zen, gaur egun bizi den herrian, Elizondon. Oroitzapen onak ditu partida hartaz: «*afizionatuetan Asier Olaizolarekin partida aunitz jokatu eta irabazi nituen. Asegarcek elkarrekin debutatzeko aukera eman zigun eta halaxe egin genuen. Nik Mikel Goñirekin jokatu nuen eta Asierrek Mendiarekin*». Handi bi urtetara, Asperekin debutatu zuen, orduan ere Elizondon.

Profesionaletan jokatu tako partidak ehunka, baina guztien artean bat aukeratzeko eskatuta, azkar erantzun digu: bigarren mailan buruz buru azpitxapeldun gelditu zenekoa. Momentu gazi-

«Noizbait pilotan aritzeko aukera baldin badut, saiatuko naiz. Seme ttikiei pilotan erakutsi eta Txaruta Pilota Eskolan esku bat botatzeari ere gustatuko litzaidake»

gozoa izan omen zen. Gazia, finala jokatzeo aukera izan eta galdu zuelako. «*Min haundiena partida nik galdu izanak eman zidan*». Eta gozoa, partida galdutakoan «*lur jota*» gelditu eta jendeak animatu egin zuelako.

Urte onak izan dira aurtiztarrarentzat, baina aio errateko tenorea ailegatu zaio. 34 urterekin sasoiaren ikusten den arren, joan den urteko abenduaren 31n kontratua akitu eta Aspek ez zion berritu. «*Denei ailegatzaren zaie ordua eta onartu beharra dago*». Beregatik balitz oraindik segituko lukeela aitortu digu, baina ez omen zuen sorpresaz hartu enpresaren erabakia: «*azken aldian jaialdietako bigarren eta hirugarren partidak jokatzen nituen, eta kontratua ez*

• **Joan den urteko abenduaren 31n erran zion aio profesionaletan 13 urte egin duen ibilbideari Unai Apeztegiak (Aurtitz, 1975).**

• **Halabeharrez utzi behar izan du pilota, azken 10 urteotan egon den Aspe enpresak ez diolako kontraturik berritu. Dena den, azken urteak «erreta» igaro dituela aitortu digu, eta alde horretatik, pilota uztea ez dela «hain gogorra» izan.**

• **Orain arte bigarren maila batean zuena, orain lehentasuna bihurtu da beretzat: lana. Eta Elizondon dauzkan oilo eta oilarren granjetan dihardu lan eta lan.**

zidatela berrituko pentsatua nuen». Garrai onak bai, baina ez hain onak ere bai. «*Azken urte honetan enpresak ez dit aunitz lagundu, eta nahiko erreta akitu dut. Horregatik ez da hain gogorra izan profesionalen mundua uztea*». Erreta akitu zuen seinale, kontratua akitu zitzaionetik ez du jokatu pilotan. Baina ez du erabat utzi nahi eta etorkizunean, pilotan aritzeko aukerarik baldin badu, saiatuko dela adierazi digu. Seme ttikiei pilotan erakustea ere gustatuko litzaioke, eta Txaruta Pilota Eskolan esku bat botatzeari ere bai.

Pilota profesionala agurtuta, lanean dabil burubelari Apeztegia, Elizondon dituen oilo eta oilarren bi granjetan: «*lehen pilotak zuen lehentasuna, eta bigarren mailan lana zegoen. Orain, alderantziz*». «*13 urte pasatu ditut pilotan eta orain bertze etapa bat hasi dut*».

Halere, luze gabe, baliteke berriz plaza ikustea. Udan Bengoarekin jokatzeo proposamena luzatu diote, eta zer egin erabaki ez badu ere, aukera ma-haigainean du.

HERRI KIROLAK

Herri kirolak zabaltzeko material didaktikoak kaleratu ditu Federazioak

Hamar kirolen inguruko bortz aldizkari eta bi DVD argitaratu dira

ttipi-ttapa

Herri kirolak zabaltzeko eta bultzatzeko asmoz, Nafarroako Herri Kirol Federazioak hainbat material didaktiko kaleratu ditu. Lan hau 2003an hasi zuen eta 2011n bukatzea espero du, erakundearen XX. urteurrenarekin harira. Nafarroan gehien hedatuak dauden 10 kirol aztertu dira eta egindako aldikari eta DVDak martxoaren 24an aurkeztu zituzten Iruñean.

Guztira bortz monografiko egin dira, harri jasotzea, aizkora, tron-tza, iparraldeko jokuak (sei modalitate) eta sokatirari buruz. Monografiko horiek aldizkari itxurakoak dira. Bi bideo ere egin dira, harri jasotzea eta sokatirari lotuta, **Ttapi-Ttapa Telebistak** ekoiztitakoak.

Herri kirolak bultzatu eta zabaltzeaz gain, bere sorrera, garapena eta ezaugarriak buruzko argibideak ematea ere bada material hauen helburua. Hala, arlo tekniko eta araudia ongi aztertu dira kirol bakoitzean.

Euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu dituzte lanak. Irakurketa errazekoak dira, eta argazki eta irudiek garrantzia handia dute. Arlo orokorra eta teknikoak ere jorratzen dira. Txapelketa ofizialei buruzko zenbait datu ere topa daitezke, baita kirolari eta marka nagusienei buruzko argibideak ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikel Lasarte liburuxken egilea, **Jose Javier Esparza** Nafarroako Kirol Institutuko zuzendaria eta **Ruben Goñi**, Sakanako Mankomunitateko ordezkaria, material didaktikoen aurkezpenean.

SUNBILLAN SOILIK BANATUKO DIRA

Material hauek Nafarroako Herri Kirol Federazioaren egoitzan banatuko dira soilik, Sunbillan. Telefona honakoa da: 948-450900 eta posta elektronikoa: herrikirolaknafarroa@hotmail.com. Ikastetxentzako dohainik banatuko dira, eskariaren arabera.

Bilduma osoa 20 eurotan dago salgai, eta aleak banaka nahi izanez gero, bortz euro ordaindu beharko dira.

LAGUNTZA PUBLIKOA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak honako instituzio hauen laguntza jaso du: Nafarroako Gobernua, Sakanako Mankomunitatea, Arangurengo Udala, Lesakako Udala, Doneztebeko Udala, Diario de Noticias egunka-

ria, Nafarroako Rural Kutxa eta Idiazabal gaztaren jatorrizko izendapena.

MIKEL LASARTEK IDATZITAKO LIBURUXKAK

Mikel Lasartek idatzi ditu aldizkariak. Lasarte Nafarroako Federazio kirol lehendakaria izan zen 2001 eta 2004 bitartean, harri-jasotzailea da eta Sakanako Harri-jasotze Eskolako arduraduna.

Gaur egun, 400 fitxa inguru dituzte Federazioan, gehienak sokatirari, talde-kirola delako. Aizkora ere indarrean dela aitortu zuen Lasartek aurkezpen egunean. «*Baina herri kirol modalitate batzuetan sega eta probak, esate baterako*». Segari dagokionez, azken hiru urteotan txapelketa antolatu du Federazioak, eta se-

galari kopurua gizendu nahi luke. Abere eta giza probei dagokionez, Lasartek nabarmendu zuenez, «*garai batean Nafarroan harri probak izan ziren, Betelu eta inguruetan gehienbat, baina gero galdu egin ziren eta zaila izanen da berreskuratzea, gizar-tea ere aldatu egin delako*».

SEGA ETA HERRI KIROL EN JATORRIARI BURUZ

Urte honi begira, segari buruzko liburuxka argitaratzeko da Federazioa. 2010ean, berriaz, herri kirolen jatorria, etnografia eta historia lotuko dituen bertze ale bat kaleratzeko asmoa du. «*2011. urtea mugarriz izanen da, orduan beteko baita Federazioa sortu zeneko 20. urteurrena, eta hori balliatu nahi dugu bilduma egiteko*».

FLASH

Basaburua Herri Kirol Jolasetako finalean

Baztango Basaburua taldea izanen da igande honetan, apirilak 5, Berriozarren jokatu den Nafarroako Herri Kirol Jolasetako azken jardunaldian ariko den eskualdeko ordezkari bakarra. Martxoaren 22an Berroetan jokatuak lau garren saioaren ondoren, baztandarrak alebin, haur eta kadeteen mailan lehiatuko dira, 11:00etatik aitzinera Berriozarreko frontoian.

PROBA KONBINATUAK

Alebin mailan liga sisteman ari dira eta azken jardunaldia Berroetan jokatu zuten. Handik ondoko lau taldeak sailkatu ziren finalerako: Andra Mari, Ultzama, **Basaburua** eta Berriozar A. **Arantza** eta **Igantzi** izan dira alebinetan aritu diren eskualdeko bertze bi taldeak, baina ez dute finalerako txartelik lortu. Haurretan, **Basaburua** da sailkapeneko lehen sailkatua eta beraz, berak izanen du azken jardunaldian txapelak janzteko aukera nagusia. Kadeteetan, aldiz, hiru talde daude berdinduta sailkapen orokorrean: Andra Mari, **Basaburua** eta Txantrea. Hortaz, igandeko jardunaldia erabakiorra izanen da.

SOKATIRA

Sokatirari bai mailatan ari dira, eta azken jardunaldiari begira, **Basaburuak** aski ziurtaturik dauka txapela haurren mailan, lehen postuan dagoelako eta 6 puntuko alde kentzen diolako Berriozarri. Kadeteetan, aldiz, Txantrea liderrak borroka egin behar du azken jardunaldian txapelaz jabetzeko, bi puntuko alde soilik kentzen baito **Basaburuari**.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

IKASTAROAK

DONEZTEBE

Apirilaren 7an erretzeari uzteko hitzaldia. 12:30etik 14:30era Liburutegian.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Apirilaren 16ra arte, Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartel lehiaketa.

BAZTAN-BIDASOA

Maiatzaren 1era arte, Bidasoako XXII. Bertsopaper Lehiaketa.

HITZALDIAK

LESAKA

Apirilaren 3an, *Krisi ekonomikoa: arrazoiak eta alternatibak* hitzaldia eskainiko du Igor Arroyo LAB sindikatutako Nafarroako idazkariak. 20:00etan Arrano Elkartean.

ERAKUSKETAK

ZUGARRAMURDI

Apirilaren 3tik 19ra, Itziar Mikelperezena Berako margolariaren lanen erakusketa Sorginen Museoan. 11:00etatik 19:00etara.

BERA

Apirilaren 3tik 19ra, *Bera atzo* izeneko argazki erakusketa Kultur Etxean, Rosa Mari Errandonearen eskutik. Asteartetik igandera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara (igande arratsaldez itxita).

URDZUBI

Urte osoan, gaur egungo pinturari buruzko erakusketa. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monastegiko Klaustroan.

GOMENDIOAK



Escena Dantza Jaialdiko bigarren saioa apirilaren 17an

SOÑANDO DESPIERTOS EMANALDIA BERAN

Escena Jaialdiaren barranean, Beran eginen den bi emankizunetatik lehenbizikoa joan den larunbatean egin zen: Logela Multimedia & Circle of Trust-en *Papiro...flexia*. Baina dantza garai-kidea gogoko dutenek bigarren aukera apirilaren 17an izanen dute, 22:00etan Kultur Etxean. Laida Aldaz, Cruz Israel Mata eta Natalia Sardik *Soñando despiertos* ikuskizuna eskainiko dute. Obrak hainbat errealitatean dauden hiru izaki aurkeztuko ditu, errealitate horiek guztiak bizi garen munduen zatiak dira: ametsen munduarena eta errealitatearena. Zenbait amets erdietsi nahiko geni-

tuzkeen arren, errealitatean ezin dugu, oinak lurrean paratu nahiko genituzke eta hegaz egiten jarraitzen dugu.

AMETSEN BILA

Fernando Pessoaen zenbait lanen zatiak hartu dituzte inspirazio-iturritzat eta Yves De Meyren konposizio originalen eritmoren dantzatzen dituzte. Ametsen bila beren herrialdeetatik atera behar izateak obra honetako dantzariak bultzatu zituen ametsen eta errealitatearen arteko harremanari buruz lan egitera. Sinboloen bidez mundu batetik bertzera bidaiatzera gonbidatzen gaituzte.

DISKAK



Xabi SAN SEBASTIAN

Xabi SAN SEBASTIAN

ELKAR, 2009

Xabi San Sebastian (Donostia 1967) ez da berria musikaren munduan. Aparteko talentuan oinarritu du bere ibilbidea. Euskal Herri-ira itzuli eta Izotz taldeko kantari zein gitarra jotzen hasi zen eta zazpi urtez taldeko gitarra eta ahotsen arduraduna izan zen. Aro hau bukatu eta bertze lau urtez Alboka taldean kantari aritu zen. 2004. urtean bakarkako lehen diskoa argitaratu zuen (*Ora*). Telebistan ere aritua dugu Xabi San Sebastian eta 2006an ETB-1ren EKO izeneko saioko irabazle izan zen Xabier Leteren *Xalbadorren Heriotzean* kantaren bertsio zoragarri batekin. Orain bere taldearekin datorkigu Ospela soul, bossa eta pop rock-eko disko freskagarri eta bikain hau aurkeztera. Otsailean argitaratu zuen eta geroztik salgai dago.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (martxoaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 49,00 € (=)

Zerri gizena
1,127€ kilo. (+0,012)

Zerramak:
0,460€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10 (-0,03)

1.koa 3,80 (-0,03)

2.koa 3,10 (-0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,20 (-0,03)

1.koa 3,90 (-0,03)

2.koa 3,22 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,98/3,08

Zaldi-behorrak: 1,67/1,87

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,10/5,90

8-10 kilokoak: 4,20/4,50

JAKIN BEHARREKOAK

Krisia tarteko inoiz baino komisio altuagoak kobratzen dituzte bankuek

Kontu bat mantentzeagatik batz bertze 20 euro kobratzen dute

Garai ekonomikoak hobeak ziren, eta bankuek oinarriko zerbitzuak eskaintzeagatik ez zuten komisiorik kobratzen. Baina egoera horrek buelta eman du, eta beti bezala, erabiltzaileak dira kaltetuak.

Krisia dela-eta, bankuen irabaziak murriztu egin dira. Consumer Eroskik egindako ikerketa baten arabera, 2008ko zenbakietan diru-sarreraren beherakada handia espero da. Hain zuzen, horri aitzin egiteko, komisioak igotzea erabaki dute. Kontuak mantentzeagatik, transferentziak egiteagatik, txekeak kobratzeagatik, txartelak erabiltzeagatik... Hori guztia kobratzen dute gaur egun bankuek, eta ez gutti, gainera.

Oinarriko zerbitzuak eskaintzeagatik inoizko kopururik altuenak kobratzen dira. Consumer Eroskik



Txartelen komisioen bidez irabaziak egiten ari dira bankuek.

egindako azterketako datuak dira.

KONTU KORRONTEA MANTENTZEAGATIK

Kontu korrante bat zabalik mantentzeagatik, batz bertze urteko 20 euro kobratzen dute bankuek, eta zenbaitetan 42 euro. Norbaitek 9 euro baino guttiago ordaintzen badi, zorionekoa bera. Merkatuko merkeentarikoa baita. 2007tik 2008ra komisio honen igotzea %7koa izan da.

TRANSFERENTZIAK

Estatu espainiarreko bankuen 2006ko araudiaren arabera, transferentzia bat egitean hartzaileak zein emaitzaileak kobratzen dira. 2008an transferentzia bat egiteko batz bertzeko tarifa %6,3 garestitu zen, eta 3,19 euroraino igo zen. Zifra horiek 10.000 euroko transferentzia bati dagozkie. Kopuruak ttikiagoak direnean, komisioak altuagoak dira.

TXARTELEN ERABILPENA

Txartelen erabilezagatik komisioak kobratuta ari dira diru gehien jasotzen bankuek. Debitu txartelen kasuan, bertze banketxeren batean baino sare bereko kutzazain batean (Servired, Euro 6000 edo 4B) dirua ateratzeak 0,71 euroko gastua zuen batz bertze 2008an, 2007an baino %18 gehiago. Sare bereko bertze banketxe batetik dirua aterata, atera den diruaren %2 kobratzen da. Kreditu txartelen kasuan, berriz, komisioa %2-4koa da.

ZENBAKI GORRIAK

Kontua zenbaki gorritan egotea ere ez da deialdekoa. Batz bertze banketxeek 10,05 euro kobratzen dute bezero baten kontua zenbaki gorritan gelditzeagatik, 2007an baino %23 gehiago.

LIBURUAK



Egungoaren esku izoztuak

XABIER LETE

PAMIELA, 2009

Bizitza, heriotza, maitasuna, urradurak, iraganean zeuden lurraldeak, biziguneak, bidaiak, udak... Horrelako gaietarako Xabier Lete idazle oiarriak *Egungoaren esku izoztuak* bere lanean. Galeraren zentzu bat ere aipatzen du liburuan: «bizitza galtzen dugu, maitasuna galtzen dugu, osasuna, lagunak, adiskideak, lurraldeak...». 15 urte eman ditu Letek poema libururik argitaratu gabe, eta orain, liburua plazan dela, ados

dago bere lanaren emaitzarekin. Idazlearen hitzetan, «*neure barruko egia agertu dut, egia izan naizela eta hor ez dagoela betelanik, ez dagoela txorakeriarik. Horretaz ziur sentitzen naiz*». Bizitza baten esperientzia nagusiak islatu ditu liburuan, errelato ttiki bidez. Duela 13 bat urte hasi omen zen liburu honetako poemak idazten. «*Baina zentzu osoa emateko falta zitzaiona, Lourdesen heriotzarekin etorri zen*».

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Apirilaren 18an Gorbeia mendi irteera antolatu du Ulibeltzak Mendi Taldeak. Irteera ordua 7:00etan izanen da.

BAZTAN

Apirilaren 5ean Hondarribira ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek. **Apirilaren 19an** Hirumugetara ateraldia, Baztango Mendigoizaleek antolatuta.

OSPAKIZUNAK

ARANTZA

Apirilaren 4an Korrika Ttikia herrian barna. Xehetasun gehiago 12. orrialdean.

SENPERE

Apirilaren 5ean Hatsaren Poesia Eguna. XI. edizioa izanen da. Xehetasun gehiago 42. orrialdean

BERTSOAK

LESAKA

Apirilaren 18an bertso saioa, Bortzirietako Bertso Eskolaren eskutik. 17:30ean Andra Mari egoitzan.

KONTZERTUAK

LESAKA

Apirilaren 8an Musika Eskolaren kontzertua, 17:00etan Udaletxeko Pleno Aretoan.

IKUSKIZUNAK

BERA

Apirilaren 17an, Escena Dantza Jaialdia. *Soñando despiertos* dantza garaikidea. 22:00etan Kultur Etxean. Xehetasun gehiago aitzineko orrialdean.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira. Argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €. Ttipi-ttapa telebistan eta www.ttipi.net/en ere agertuko da 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabekak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459


anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Duplexa salgai Bidasoa karrikan. Eraberri-tua. Interesatuak bakarrik. ☎661 577137.

IRUÑA. Txantrean pisua salgai, 4. solairuan, igogai-lurrik gabe. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berritua eta mobleztatuta. ☎667 363593.



DONEZTEBE. 90m²ko pisua salgai, toki lasaian. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Aparkatzeko toki onean eta egoera onean. ☎615 561458.

DONEZTEBE. 80m²ko pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bi balkoi hiru aldetara (aitzinerak, gibelerak eta alde-tara). Argitsua, bista

onak eta aparkaleku paregabea. Ongi kokatua eta prezio onean. Deitu konpromisorik gabe. ☎615 561458.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Pisua errentan emateko. Sukalde-jantokia, egongela, bi bainuge-la osatu eta hiru logela. Berogailua. Mobleztatua. ☎690 180230.

ELIZONDO. Erlategi plazan 3 logelako pisua errentan emateko. ☎650 283322.

DANTXARINEA 5 minutura 15m²ko borda errentan emateko, 30m²ko terrazarekin. 220 euro hilean. Ura eta elektrizitatea barne. Irailaren 1etik ekainaren 30era erabiltzeko. ☎(0033) 633871005.

LESAKA, ELIZONDO eta **DONEZTEBE.** Pisuak errentan emateko. ☎607 978656.

BERA. Pisua errentan emateko, 3 logela, egongela eta bainugela. Mobleztatua. ☎948 630552.

LESAKA. Pisua errentan emateko, 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Erdi mobleztatua. ☎948 630552.

SUNBILLA. Baserri moldatua errentan emateko, lur eremuarekin. ☎948 630552.

ETXALAR. Pisua errentan emateko, mobleztatua. ☎948 638131.

BERA. Eztegarra pasealekuan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea kanpora begira. Berogailuarekin. ☎600 501881.

ETXEBIZITZAK

105 Konpartitzeko

ELIZONDO. Pisua konpartitzeko lagun bat behar da. ☎610 949168.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu
LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

BERA. Bajera bere lur eremuarekin salgai. Vasconia bankuaren ondoan. Merke. Ikusi eta prezioaz solastuko dugu. ☎607 978656.

LESAKA. Antoiu 23, beheko solairuan, 48 m²ko bulegoa salgai edo errentan emateko. ☎679 432522.

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

BURLATA-IRUÑA. Tayri higiene-naturista zentroa: ikastaroak asteburuetan=20 euro=nola araztu organismoa halako kasuetan: botikak hartuta, gehiegizko elikadura, alkohola, tabakoa, drogak, alergia...nola prebenitu: katarro errepikakorak, otitisa, anginak, infekzioak, operazio-ondokoa/aurrekoa edo egonaldia ospitalean. Kiromasajista: osteoartikularra eta zirkulatorioa=9 egunetan=150 euro. ☎948 186907/ 647 156370.

Fistula arazoak? Kirurgia-rik gabe. Naturala. 15 egunetan moldatua. ☎618 628311.

NARBARTE. Klase partikularrak ematen dira, 18 urte bitartean. Batxilergoko irakaslea. ☎608 466231.

Pladur instalatzaileak lan eginen luke. Erremintak, furgoneta eta autonomoa. ☎609 477277.

LANA

302 Eskaintzak

Jatetxe batean **fregade-**

ran lan egiteko eta **zerbitzari** lanetan aritzeko bi langile behar dira. Jai eta opor egunetan lan egiteko. Eguerdiko zerbitzua (12:00-17:00). ☎948 599222.

Tornulari bat behar da, esperimentziaduna. Tornu konbentzionala eta kontrol numerikoa. ☎948 631167.

MOTORRA

501 Salerosketa

Motorra salgai: KTM 640 trail. ☎678 959534.

Iveco Stralis 480 **kamioia** salgai. 5 urte. Garraio txartelarekin eta lan egiteko aukerarekin. ☎948 630946/ 619 317168.

Golf V GTI autoa salgai. 2006ko abuztuan matrikulatua. 35.000 km. Oso egoera onean. Prezioa: 23.000 euro. ☎615 747054.

Opel Vectra DTI autoa salgai. Diesela eta egoera onean. ☎678 606407.



Gas-gas 321 TXT motorra salgai. 2000koa. Partikularra eta matrikulatua. 1.500 euro. ☎678 606407.



Kamioi trailerra salgai, lanerako aukerarekin. ☎615 561458.

ANIMALIAK


601 Emateko

Pirinioetako mastina opa-

ritzeko. 3 koloretakoa eta 3 urtekoa. Etxean egotera ohitua dago. ☎609 290513.
Euskal artzain zakur emea oparitzeko. 8 hilabetekoa. ☎609 290513.


ANIMALIAK 602 Salerosketak

Mendiko **garainoa** erosi edo trukatu nuke. Beltza bada hobe. Nirea mendian ongi egoten dakiena da, pottoken tamainakoa. ☎637 873969.



Bi asto eme salgai. 11 eta 3 urtekoak. Aukera ona.

☎699 928540 (Aritz).



DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

USB memoria agertu da Ttipi-Ttapan. ☎948 635458.

DENETARIK 702 Salerosketak

Aulki gurpilduna eta bainerarako **aulki egokitua** salgai. Biak berri-berriak. ☎686 199873.

Belarra mailatzekoa salgai. Prezioa: 600 euro. ☎678 959534.

Lehen ebakialdiarekin egingindako **150 belar-fardo** salgai. ☎699 432036.

Gantxilo egindako koltxak salgai, 1,35 eta 1,5 metrokoak. ☎662 143066. Poliuretano P.U. **depositu** salgai. Ultramore tratamendua pasatua. 10.000 litroko edukiera, elikagai-kontsumorako. Berria eta merke. ☎648 184068.

1,5-6x44ko **mira** salgai. Leoupold eratzun desmuntagarria eta fundarekin. Prezioa: 275 euro. ☎629 722980.

Belarra biltzeko eta nahasteko makinak salgai. Deutz Fard markakoak. ☎649 575549.

DENETARIK 703 Bertzelakoak

DONEZTEBEKO GASOLINDEGIA

DESCONTUAK CLUB AVIA tartelarekin
%2 gasolio eta gasolinan
%5 dendako produktuetan

ZOKKETAK
 Gasolindegia etortzen bazara
 harbit zokketatan
 sartuko zara:

aitatu
4 gurpilak

10 €
 baleak

Leizakua 40 - DONEZTEBE - T. 948 451 679 - F. 948 458 657

MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
 (gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
 (luze eta laburrak)
TURISMOAK

Biomasaren inguruan interesatua dagoen jendearekin harremanetan jarri nahi nuke, galdara paratu

PSIKOANALISTA
 Kuntzailariko eskatu erdua
 ☎ 948 272011 (JURUA)
 ☎ 948 580975
 Jaime Urutza 42-2-D - ELIZONDO

duena edo paratu nahi duena. ☎616 295420/ joseba@ingurulan.com.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
 zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**
 Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

Zure laguntza eskertzeko,
 motxila eder hau izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Doneztebeko **JOSEBA JUANTENAK** apirilaren 1ean 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta Mikelen partetik.



JOSU ETXEPETE-LEKU BURGETE lesakarrak 3 urte bete ditu martxoaren 31n. Zorionak familiaren partetik eta berexiki Jon eta Ane-ren partetik.



Aupa txapeladun! Segi horren alai! Zorionak Etxalarko **XABIER TELLETXEARI** apirilaren 18an 7 urte eginen di-tuelako. Muxu pila familia guztiaren partetik.




ANE PACHECO SAN JULIANEK apirilaren 2an 10 urte beteko ditu. Zorionak preziosa Ainara, atta eta amaren partetik. Bizkotxo eta txan-paina noizko?



GARAZI ARBURUA ZELAIETAK apirilaren 2an urtea beteko du. Auniz urtez amatto, attatto eta zerurat joan berri den birramatxiren partetik. Muxu haundi bat monona!



AIZOAINGO IRAIA REMIREZ PERUREN urtea beteko du apirilaren 2an. Zorionak Iturengo amatxi, izeba-osaba, Irungo osabazibea, Naroa eta Unaxen partetik.



AIZOAINGO IRAIA REMIREZ PERUREN urtea beteko du apirilaren 2an. Zorionak eta muxuak gure etxeko sorgintxoari, ama, atta eta berexiki Janireren partetik.



IBON IRASTORZA URDANIZ 9 urte bete ditu martxoaren 30ean. Zorionak gure igeltsero berriari. Muxuak familiaren partetik.



Leitzako **JOSE MIGUEL** eta **PAQUITAK** apirilaren 4an elkarrekin 64 urte beteko dituzte. Familia ederra hazi zenuten, bizkor osasuntsun zaudete, eta aurrera begira ere jarraitu holaxe, elkar maitatzen. Muxu haundi bat zuen familiaren partetik.



EKIÑE Aurtizko printzesak beste urte bat eginen du apirilaren 2an. Muxu haundi haundi bat Xabi, Leire eta berexiki Argoitzen partetik.



ASIER TELLETXEA APEZTEGIA beratarak 7 urte bete ditu martxoaren 30ean. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki Andoniren partetik.



Elgorriagako **XUAR IRISARRI MENDI-ZABALEK** apirilaren 2an urtea beteko ditu. Zorionak Elgorriagako familiaren partetik eta berexiki aita eta amaren partetik. Muxu haundi bat.



ALAZNE MARIEZKURRENA SANSIÑENA aurtiztarak apirilaren 15ean 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren eta berexiki Imanol eta Uxueren partetik.



JONAN MIGELENA MARIEZKURRENak martxoaren 31n 4 urte bete ditu. Zorionak Igantzi eta Eratsungo familiaren partetik. Mila esker atta eta amari 4 urte hauetan eman diguzuenagatik.



XUAR IRISARRI MENDIZABALI zorionak! Apirilaren 2an urtea beteko du. Muxu haundi bat Aurtiztik eta berexiki Ekiñeren partetik. Ongi pasa eguna.



Arizkongo **HEGOI SAN MILLAN SOBREVIELAK** 3 urte bete ditu martxoaren 20an. Zorionak eta jaso mila muxu guraso eta Ainizerengandik.



Elizondoko **LUHANA DA SILVA VARELAK** urtea bete du martxoaren 27an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



JANIRE MARTIN GOIA lesakarrak 9 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak eta auniz urte familiaren partetik. Muxu pila pila!!!



HAIZEA AIOROA APEZTEGIAK 7 urte beteko ditu apirilaren 6an. Segi beti bezain alai eta sorgin! Muxu haundi bat familiaren eta berexiki atta, ama, Hodei eta Haitzen partetik.



Eratsungo **AMAGOIA MINDEGIA BENTOK** apirilaren 5ean 5 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu potolo bat ama, aita, Ituren, Sarriguren eta Eratsungo familiaren eta berexiki Goizeder, Jasone eta Enekoen partetik.



Irungo **MIRARI ETXEBERRIA ZUBIALDEK** 7 urte beteko ditu apirilaren 4an. Mila kilo zorion eta muxu pila-pila patata tortilla Xune, Unai, Aimar, Jone eta Landerren partetik.



HAIZEA AIOROA APEZTEGIAK apirilaren 6an 7 urte beteko ditu. Zorionak *jitana* Ekiñe eta Ainararen partetik. Muxu haundi bat eta ongi pasa!



VIRGINIA GOIENETXE GONZALEZ lesakarrak 9 urte beteko ditu apirilaren 3an. Zorionak eta muxu auniz familiaren partetik.



ARITZ IBARRA eta **UGAITZ LARRALDE** beratarrek apirilaren 26 eta 4an 12 eta 10 urte beteko dituzte. Zorionak!! Berenduaren zain gaude! Irati eta Izaro.



UGAITZ LARRALDE beratarak apirilaren 4an 10 urte beteko ditu. Zorionak eta belarri tiraldi bana etxekoan partetik.



Hau da hau pare! Martxoaren 30ean birrattuna **MARTINEK** 89 urte bete ditu eta apirilaren 1ean etxeko ttikiak, Naroak, urtea. Muxu haundi bana bei eta orain bezala urte askoan segitu!



XUBAN TABERNA MUTUBERRIA arantzarrak 3 urte beteko ditu apirilaren 10ean. Zorionak eta muxu haundi bat!!!



Almadozko **ELIAS ALTZUARTE Punkyk** eta bere iloba **IKER SAGARDIAK** urteak beteko dituzte martxoaren 22an eta apirilaren 4an. Zorionak eta egun eder bat pasa dezazuela! Zeinen guapo zaudeten biak buzoarekin e!



OLATZ IRIARTE ITURZAETA arizkundarrak urteak beteko ditu apirilaren 13an. Auniz urtez eta muxu haundi bat etxeko guzien partetik, berexiki Korniren partetik.



JOSEBA JUANOTENA EZKURRA doneztebarrak 6 urte bete ditu apirilaren 1ean. Zorionak ataxi-amatxien partetik. Muxuak!



HORI DEN JOTZEA HORI, AIRE AIRE... leitzako panpoxa honek apirilaren 2an urteak beteko ditu. Zorionak eta segi beti bezain alai. Muxu haundi bat.



deskontuak

DENDA HAUTETA EROSTEAGATIK



ZALDUA Argazki-denda • **DONEZTEBE**
%10eko deskontua produktuetan

IPINGI

IPINGI Arropa-denda • **ELIZONDO**
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



KIROLAK ZELA

ZELA Kirol-denda • **BERA**
%5eko deskontua



MARICRUZ Lentzeria • **DONEZTEBE**
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



INTZURI Optika • **LESAKA**
%10eko deskontua

KATTALINGORRI

KATTALINGORRI • **ELIZONDO**
%10eko deskontua

SARIDUNAK:

- 2 liburu (Erein):
Izakun Zubialde (Zubieta)
- 2 sarrera (Donostiako Aquarium):
Gurutze Graziarena (Bera)
- 2 jantzi (Txapela Buruan):
Joxe Apeztegia (Ituren)
M^a Dolores Albizu (Lesaka)
- Pirritx, Porrotx eta Mari motots lotea:
Amaia Arretxea (Sunbilla)
- 2 kamiseta (Ondólo):
Pilar Arretxea (Sunbilla)
Miren Josune Iturzaeta (Arizkun)
- Ángel Ocray-en diska:
Marian Irazoki (Bera)

SMSa

2 sarrera (Cubo Spa & Sport):
Elixabet Bidegain

2 sarrera (Artic izotz jauregia):
Olatz Bernal (Eratsun)

Animatu
www.ttipi.net
bitartez ere parte har dezakezu.

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



ttipi txartela rekin
beti irabazten da!

10 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
asteleheneretik ostiralera
09.00-16.00

Tel. **948 63 54 58**

1 HIRU LIBURU

Astaren atean
Kafka eta pangina
bidalaría 1-10
Iptiluaren kalteak 1-10

Lote 1

ekar
fundazioa

www.ekar.com

2 BI KAMISETA

Lote 1

oninart

www.oninart.com

3 JANTZIAK

Soneko, kametarik,
perretak... zeh azkenak

2 Lote

txapela buruan

www.txapelaburuan.com

1 HIRU LIBURU

Hiruak! Abontzatari 1-31
Pintosa jolaseren sekretua 1-10
Ebonburu arriskutsua 1-10

Lote 1

ibaizabal

www.ibaizabal.com

2 MARTIKO PRODUKTUAK

Lote 1

martiko

www.martiko.com

6 CD

Valde Maestre de Fran Ibarra

Lote 1

terminmusic.com

www.terminmusic.com

ttipi saskia **TTIPI SASKIA**ren ZOKKETAN
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure IZEN-DEITURA **5767** ra

CAMELOT PARK
2 SARRERA
TXINGUDI ALCAMPO • IRUN
943 626 216

Mendukilo
Lote burdikoa • Corra burdikoa

5 sarrera bikoitz
eta liburu bat

ASTIZ (Nafarroa)
948 396 095

Zozketan parte hartzeko agur: martxoaren 27tik apirilaren 6ra, irabazterik gabe, asteleheneretik ostiralera, 10ko bidalaritan sartzerarako diru. Martxoaren 30etik 1.00€ (98.2 gabel). Zure datuak ttipi-Haztegiaren Inbalegiaren gureko diru jurrerantzearen bitartez zure eskaintzari berriz erretako. Zuzenketa edo deusartzearen bat agertu zenuk 948 63 54 58.

Lurr

apirilak 4 larunbata

Kauta + póg mo thón

23:30 9€ Aurretik 11€ Takillan

apirilak 9 osteguna

LURDJOTAK

apirilak 11 larunbata

THE BON SCOTT BAND +

AC/DC
TRIBUTE BAND

The
Cheesy
Poops

23:30 12€ Aurretik 15€ Takillan

apirilak 18 larunbata

LURDJOTAK

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

apirilak 19 igandea

NAFARROARI

17:00 10€ Martxoan 13€ Apirilan

apirilak 25 larunbata

MIGUEL ANGEL Y EL MARIACHI DE LA CANTINA

00:30 9€

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM